

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / 714. zenbakia

HIRIGINTZA / Ur zikinak batzeko hodia

Laster, Santa Barbara parke inguruan kolektorea sartzeko lanak egiten hasiko dira

UBANE MADERA

Poliki-poliki, badabiltza eraikitzen ur zikinak batzeko hodia. Aramaio errekararen botatzen dituzten urak batzeko da hodi hori. Lanok zatika dabilta egiten; Loramendi zein Otalora kaleetan, bietan dabilta orain. Laster, Santa Barbara parkean hasiko dira.

Santa Barbara parkean interbentzio nahiko handia egin beharko dute. Eta lan horiek eragina izango dute, besteak beste, han dagoen haur-parkean. Esandakoaren arabera, ziburuak erretiratu egin beharko dituzte. Hala jakinarazi digu Udaleko Hirigintza Saileko teknikari buru Juan Antonio Urdangarinek. Halaber, gaineratu digu Udalean pentsatzen dabiltzala lan horiek aprobetxatu eta hala, ziburu zaharrak betiko erretiratu eta berriak ipintzea haur-parkean.

Aditza eman digunez, hasitekotan dira Santa Barbarako lan horiek: "Gero, hortik gorantz segituko dute kolektorea sartzeko, Gesalibarreraino".

NONDIK NORA

Aramaio errekararen urak Deba ibaira isurtzen diren lekuan hasi ziren kolektore horren lanak egi-



Besteak beste, Santa Barbara parkeko ziburuak erretiratu egin beharko dituzte, lanak egiteko.

ten, hiltegi zaharra zegoen lekuan, hain zuzen ere. Eta handik gorantz etorri dira lanean, zatika. Lehen esandako moduan, orain, Loramendi eta Otalora kaleetan dabilta lanak egiten.

HILABETEZ, GELDI OTALORAN

Horren harira, Juan Antonio Urdangarinek esan digu, bere

Otalora kaleko zatian hilabeteko atzerapenarekin dabilta, azken euriteen eraginez

ustez, Otalora kaleko zatia dela egiteko zailena; jakinarazi digu puntu horretan lan asko eginda dutela dagoeneko, nahiz eta kanpotik zuloa bakarrik ikusi. Baina horrekin batera, gaineratu digu atzerapenarekin ere badabiltzala; hilabetean-edo lanak geldi egon behar izan direlako: "Ur handiak egon direnean, makinak

errekatik atera behar izan dituzte-eta". Horixe izan da, hain zuzen ere, orain dela aste batzuk egindako euriteen eragina. Edozelan ere, gaineratu digu eguraldiaz gainera, ez dutela bestelako arazorik izan orain arte.

Dena dela, obrak bukatzeko epeari dagokionez, eguraldiak eragin handia izan dezakeela ere esan digu Hirigintza Saileko teknikari buruak.

JAURLARITZAK EGIN, UDALAK ZAINDU

Construcciones Mariezcurrena enpresa nafarra dabil kolektorearen lanak egiten. Baina obraren sustatzailea Eusko Jaurlaritza da. Arrasateko Udalak lanen jarraipena egiten du. Eta finantziarioari dagokionez, zenbait erakunderen esku dago.

HORTIK EPELERA

Ur zikinak batzeko, Arrasaten egiten duten bigarren obra handia da hau. Orain dela bi urte, Deba ibaira botatzen ziren ur zikinak batzeko kolektorea sartu zuten. Orain, Aramaio erreka garbitzeko txanda da.

Behin lan guztiak bukatuta, Epelen eraikiko duten araztegi-isa isuriko dituzte ur zikinok, han garbitzeko. Estatuak 32 milioi euro inbertituko ditu Epeleko araztegi horretan.

Udaleko lanpostuetarako izenematea maiatzaren zabalduko dute

U.M.

Zazpi lanpostu betetzeko deialdia egin du Udalak 2005eko Lan Eskaintza Publikoan. Jakinarazi digutenez, laster zabalduko dute izena emateko epea.

Arkitektoa, kirol teknikaria, prebentzio eta gizareratzeko teknikaria, saneamendu eta mantenu teknikaria, erizaintzako diplomadun bi, aisialdirako begiralea eta

AUKEAko mantenu langilea behar ditu Udalak. Funtzionario izateko lanpostuak dira guztiak.

Hala, interesa duenak maiatzaren eman ahal izango du izena, udaletxean bertan. Baina oraindik eguna zehaztu barik dago. Izan ere, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOEn) argitaratu eta hurrengo 20 egun naturaletan eman ahal izango da izena. Eta oraindik, ez dute BOEn argitaratu. Hori bai, udaletxetik jakinarazi digute goizago ala beranduago,

baina ia seguru maiatzaren argitaratuko dutela iragarkia.

LAU UDALTZAIN GEHIAGO

Lau udaltzain hartzeko deialdia ere egin zuen iaz. Esan digutenez, 94 lagunek eman dute izena. Baina halakoetan gertatzen denez, litekeena da asko euskarazko ziurtagiria lortu nahian etortzea. Maiatzaren 23an hasiko dira azterketak egiten. Aurrerago, berriz, arreta-bulegorako arduraduna hartzeko deia egingo dute.

U.M.

Arrasateko parroko Jenaro Lekuonak jakinarazi digunez, San Kristobal hilerriko funtzionamendua dela-eta, erabaki dute ez egitea hileta elizkizunik domeketan eta jaiegunetan.

Kontua zera da: Udalak erabaki zuten maiatzaren letik aurrera ez egitea ez ehorzketarik ezta errausketarik ere San Kristobal hilerrian. Ekonomia kontuengatik hartu zuten erabaki hori.

EGOERA BERRIRA EGOKITU

Hala, orain, Arrasateko Pastoral Barrutiak jakinarazi digu erabaki dutela gauza bera egitea. Halaxe azaldu digu Jenaro Lekuona parrokoak: "Egoera berri horretara egokitzeko eta hildakoen etxekoei ahalik eta eragozpen gutxien sortu asmoz, igande eta jaiegunetan ez dugu hileta elizkizunik egingo".

Gauzak horrela, hurrengo egunean egingo dituzte: "Hileta mezak domeka nahiz jaiegun biharamunetan egingo ditugu".

ELKARRIZKETA

LEIRE EZKURRA/ DIETISTA

“Loditasuna gaixotasun bat da, baina jendeak normalean ez du hala ikusten”

UBANE MADERA

Datorren eguaztenean, dieta miragarrien arriskuen gainean berba egingo du Leire Ezkurra, Ekinen elkartearen 18:00etan. Dietista da Leire; kontsulta du Arrasaten eta horrez gainera, umeei eta erretiratuei hitzaldiak ematen dizkie.

Askok dieta miragarrietara jotzen dute argaltzeko. Arriskutsuak dira halakoak?

Bai. Zera gertatzen da: jendeak nahi duena da kiloak denbora gutxian kentzea; hilabetean 5-6 kilo, adibidez. Jendeak dieta magikoetara jotzen du. Zergatik? Jende ospetsua agertzen delako halakoak egiten. Pentsatzen dute haiek egiten badute, ondo dagoela. Eta dieta horiekin egiten dutena da denbora gutxian kilo asko kendu, jateko ohiturak aldatu barik. Egun batean fruta bakarrik jaten dute, alkatxofak... Eta pisua galtzen dute. Baina horrek “errebote edo yo-yo efektua” du: betiko moduan jaten hasi bezain laster, kendutakoak baino kilo gehiago hartzen dira (hiru gehiago edo). Hori gertatzen da ohiturak ez direlako aldatu. Azken batean, jaten ikasi egin behar da. Gainera, dieta miragarriekin normalean galtzen dena da ura eta muskuluak; koipea ez da galtzen. Esaterako, dieta hiperproteikoak: proteinak bakarrik hartzen dituzte (haragia bakarrik, edo arraina...), ez dituzte karbono hidratoak jaten (ogia, pasta...); eta pisua oso erraz jaisten dute, baina osasunarendako arriskutsuak dira, gaixotasunak ekar ditzakete, halakoekin kirola egitea oso zaila izaten da nekatuta sentitzen zarelako... Eta halako dietek, normalean ez dute oinarri zientifikorik, ezta pisua jaisteko hartzen diren produktuak ere.

Ze produktu dira horiek?

Adibidez, diuretikokoak. Likido-erretentzioa dutenek hartu behar dituzte. Orain, berriz, leku askotan ematen dituzte, pisua oso azkar jaisten laguntzen dute eta; hori bai, bakarrik ura galtzen da eta hori gero berreskuratu egiten da. Uda heltzen denean, halako produktu piloak agertzen dira: batidoak, barratxoak... Esaterako, batido horiek ondo orekatuta daude, baina afari bat batidoarekin ordezkatzeari tristemena da. Dieta horiek oso monotonoak dira, normalean ez duzu jaten ikasten, eta nahiz eta oso orekatuta egon, ezin zara egon bizitza guztian batidoak hartzen. Eta egunerokora bueltatzean, berriro hartzen duzu pisua.

Zela jakin zein den norberaren pisu egokia?

Formula dago, ofiziala, Masa Korporal Indizea: pisua zati altueraren karratua. Ateratzen den



“Erakutsita dago anorexia eta bulimia duten gazte asko dieta miragarriak egiten hasi zirela”

zifra 18'5etik 25era bitartean bada, pisua egokia da; 25-26,9 artean bada lehen graduko gehiegizko pisua du; 27-30 artean, bigarren graduko gehiegizko pisua eta 30etik aurrera, gizentasuna. 18 urtetik aurrerakoendako da hori. Formula hori egin eta norbaitek ikusten badu loditasuna duela, koipea galdu behar du. Azken batean, loditasuna gaixotasuna da, baina jendeak normalean ez du horrela ikusten; anorexia eta bulimia bai, baina loditasuna ez. Loditasunetik gaixotasunak eratortzen dira: diabetesa, kolesterola (geroago eta ume gehiagok dute...).

Zer da ondo jatea? Elikatzeko modu asko daude.

Gorputzak behar ditu proteina, mineral, bitamina... kantitate jakinak, eta zenbait elikadura motekin, ez dute behar dena hartzen. Gorputza desokerratu egiten da. Horrela ezin zaitezke bizitza guztian bizi. Onena da denetik jatea, neurrian. Koipeak (olioa) asko zaindu behar dira.

“Gizentasun kopuru oso altua dugu, batez ere umeengan; AEBtako ohiturak hartzen gabiltza”

Kiloak ondo kentzeko...

Astean kilo erdi; pixkanaka.

Bazkaltzen ura edateak lodi-tu egiten du:

Ez. Urak ez du kaloriarik.

Zenbat eta ur gehiago, hobe:

Ez. Lau-zortzi basokada edan behar dira egunean. Bestela, giltzurrunak lan larregi egiten du.

Bost jatordu, hobe:

Bai. Afarira gose gutxiagorekin iritsiko gara.

Fruta, bazkal aurretik:

Berdin da noiz. Lehenago jaten bada, lehenago beteko gara. Ez besterik.

Esneki larregi hartzen dugu:

Egunean, bi-lau jan behar dira. **Esne gaingabetua ez da ona:** Gezurra. Biek dute ur eta kalcio kopuru berdina; gertatzen dena da gustua ematen duena koipea dela. Eta esne osoak koipea du eta gaingabetuak ez. Justu koipe hori da komeni ez zaiguna.

Kirola egunero komeni da:

Bai. Osasuntsu egotea da ondo jatea eta kirola egitea.

Arrasateko
euskalgintza**“Geurea den zerbait ezin da horren erraz ahaztarazi”**

EUSKALGINTZA / U.M.

36ko gerra zela-eta, Getxon jaio zen Joxemari Muxika. Handik Bartzelonara joan ziren, Olaberriko Aranguren baserrira gero eta 11 urte zituela, berriz, Idiazabalera. Bi herri horietan eskolatu zen. Euskararekin izandako esperientzia kontatu digu.

Olaberria eta Idiazabal herrietako giroa guztiz euskalduna izan arren, eskolan ezin zutela euskara erabili gogoan du Joxemari: “Ez, ezta errekreogaraian ere. Gaztelania zen Espainiako hizkuntza, punta. Olaberrian izan genuen mutilen maisuak ez zekien euskaraz, Idiazabalen izan nuen maisua euskalduna zen, baina inola ere ez zuen ez berak egiten ez eta egiten uzten ere. Han, eskolan euskaraz hitz egiteagatik zigortzeko erabiltzen zen eraztuna ezagutu nuen”. Eskolatik kanpo, berriz, koadrila euskalduna zuela kontatu digu: “Valladolidetik eta Zaragozatik etorritakoen seme-alabek ere eskolan ez, baina kalean dotore ikasi zuten euskaraz hitz egiten”.

IKASKETAK ZELAN?

Ikasketekin segituz, bestelakoen artean, abizena “ondo” idazten erakutsi ziotela esan digu Joxemari Muxikak: “han irakatsi zidaten nire abizena aitak zioen bezala jotagaz ez zela idazten, gegaz baizik. Orain ikasi dut ixarekin idazten dela. Goi-mailako ikasketak, ondo larri ibili banintzen ere, frantsesez egin nituen”.

Familia arteko giroari dago-kionez, gurasoek gehienetan euskaraz berba egin arren, gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dezentea zutela ere jakinarazi digu: “aita donostiarra zen eta ama han lanean zebilela elkar ezagutu zuten, giro modernoagoa irudituko zitzaien”.

LANARI DAGOKIONEZ

Lanean euskara erabiltzearen gainean, berriz, zera adierazi digu: “Arrasaten lanean hasi nintzenetik eragozpen asko izan dut

lantegian euskara erabiltzeko. Euskara zekitenek ere ez zuten egiten. Utzia zeukat. Ahoz ere ez zuten egiten. Frankismoak eta tontoen modernitateak euskara alde batera utziarazi zigan, baina pixkanaka bada ere kontzientzia hartzen goaz eta uste dut buelta ematen ari garela. Geurea den zerbait ezin da horren erraz ahaztarazi eta berreskuratzeko ari gara”.

EUSKARAREN GARRANTZIA

Euskarak berarendako berebiziko garrantzia duela esan digu Joxemari: “Eleaniztat jotzen dut nire burua, baina euskara da nire hizkuntza. Ni ados nago askoren teoria den honekin: erakunde zain egon gabe euskal hiztunok, geuk joan behar dugula behar ditugun produktuak eta zerbitzuak antolatzen. Gizarte zibilak, guztiekin elkarlanean baina alderdien eskuetatik aske, bere gain hartu behar dituela jendartea euskalduntzeko zereginak. Horretarako, ahalegin handi naiz ahal izan dudana neurrian neure ekarpena egiten”.

Bukatzeke, Arrasaten euskaraz bizitzea posible den galdetzean, zera erantzun digu: “Lantokian, medikuarenean, Ertzaintzan eta epaitegian ez bada, ez dut euskaraz hitz egiteko eragozpen askorik izan. Aukeratu ezin ditudan harremanak kenduz gero, euskaraz bizi naiz”.

Horregatik diot, nahi duenak nahi duen hizkuntza erabili dezakeela, baina uste dut bakoitzak besteak aukeratzen duena ulertzeko hainbat jakin behar dugula. Besteenarekin tolerantziarik ez dago. Ruiz Pineiro zuzenbide jakituna izan daiteke, baina beste asko bezala erakutsi du ez dela demokrazia jakituna”.

Elikadura duin eta osasuntsuaren aldeko kanpaina abiarazi dute

UBANE MADERA

Elikatzeko eskubidearen aldeko kanpaina abiarazi dute Gipuzkoan. Elikatzeko eskubidea oinarritzko giza eskubide izatea lortu gura dute. Hala aurkeztu zuten Arrasaten. Prosalus, Gipuzkoako Caritas eta Mugarik Gabeko Albaitariak elkarrekin dabilten kanpaina hau bultzatzen.

Elikatzeko eskubidea oinarritzko giza eskubidea izatea eta estatuak hori errespetatu, babestu eta bermatzea. Horixe gura dute Prosalus, Caritas eta Mugarik Gabeko Albaitariak (MGA) elkarrekin. Hala, hori lortzeko kanpaina abiarazi zuten Madrilen orain hiru urte, eta orain Gipuzkoara ekarri dute.

Elikadura eza dela-eta, munduko leku askotan (gurean ere bai, batzuetan) bizi dituzten egoera latzen aurrean herritarren sentsibilizazioa piztu gura dute kanpaina honen bitartez. Gipuzkoako Caritas elkarteko ordezkari Idoia Irigaraik azaldu du: "Jende arruntarengana ez dira halako arazoak iristen. Premiazkoa da haiei egoeraren berri ematea".



Caritaseko ordezkaria, Udaleko Gizarte Saileko burua eta MGA-ko ordezkaria.

Udalak babesa eman dio sentsibilizazio kanpaina honi; hala, behar dutenean udal aretoak eta lagako dizkiete.

HITZALDIA, MONTERRONEN

Besteak beste, Arrasaten horren gaineko hitzaldia egingo dute. Astelehenean izango da, maiatzaren

9an, 19:30ean, Monterronen. EHUko irakasle Karlos Perez Alonso de Armiñok egingo du berba.

840 MILIOI LAGUN

Eguazteneko prentsaurrekoan emandako datuen arabera, 1998tik 2000ra, 840 milioi lagun zeuden munduan elikadura egoki barik.

Bandalismoari aurre egiteko neurri prebentiboak aztertzen dabil Udala

U.M.

Udalan kezkatuta dabilten herrian izaten diren bandalismo kasuengatik. Azken datuen arabera, ia 70 kasu gertatu dira. Larrienak, Santa Barbaratik botatzen dituzten harriek eragiten dituztenak dira.

Joan den egubakoitzean (apirilak 29) gertatu zen azkeneko kasua, Santa Barbara parketik harriak botatzearen ondorioz. Gure Leku tabernaren ondoan zegoen automobil baten atzeko kristala zeharo apurtu zuten. Eta halako kasuak maiz samar gertatzen dira Otalo-

ra kalean, batez ere, Santa Barbara parkearen hasiera inguruan, Goienaren egoitza gertu. Umeak edo jende oso gaztea ibiltzen egi da harriak botatzen.

EMAKUME BAT ZAURITUTA

Halako kasuekin lotuta Udalak emandako azken datuak honako hauek dira: kalean aparkatutako autoen ispiluak apurtzearen, 14 salaketa; kalean iraultako edukiontzia 27 bider kendu behar izan dituzte; eta 14 bider, berriz, suhiltzaileak etorri behar izan dira, sutan zeuden edukiontzia itzaltzera. Santa Barbaratik botatutako harriek dagokienez, berriz,

haien ondorioz bederatzita salaketa izan ditu Udalak, etxeetan zein autoetan kalteak eragitearren; eta larriagoa dena, orain ez asko, besoetan umea zeraman andre bat buruan jo zuten halako harri batekin. Horrez gainera, hiru salaketa ere izan ditu Udalak Arrasate Musikaleko kristalak apurtu izanagatik. Eta herriko zenbait eskolatan ere jasan behar izan dituzte erasoak.

Horregatik guztiagatik, Udala egoerari aurrea hartzeko neurri prebentiboak aztertzen dabil; eta oro har, eskolei, familiei eta erakundeetara dei egiten die halakoak ez gertatzeko heziketa landu dezaten.

Urarekin lotutako arazoak eta beste aztertu dituzte eskolatan

U.M.

Arrasateko 1.647 neska-mutiko uraren gaia aztertzen ibili dira irailaz geroztik. Maiatzaren 12an, eguena, ikasi eta ikusitakoaren emaitzak aurkeztuko dituzte, osoko bilkura berezian.

Eskoletako Agenda 21 egitasmoaren barruan aztertu dute uraren gaia Arrasateko ikasleek, iaz, zaborrarena aztertu zuten moduan. Arizmendi Ikastolako gune guztiek, Arrasateko Institutuak eta Mesedeetako Andre Maria ikastetxeak parte hartu dute ekimenean. Koordinazio lanak, berriz, Udako Ingurugiro Eskolak eta Legazpiko Ceida dokumentazio zentroak egin dituzte.

IKASTURTE OSOAN URA AZTERGAI

Udalako Ingurugiro Eskolako arduradun Kandi Fernandezek kontatu digunez, irailean hasi ziren neska-mutikoak uraren gaia lantzen, ikasturte hasierarekin batera. Hain justu ere, lehenengo, irakasleendako ikastaroak antolatu zituzten; hala, besteak beste, ikasleek ikasturte osoan eskolako gainerako ikasketen artean uraren gaia ere landu dute.

IRTEERAK ETA BESTE

Horrez gainera, bestelako ekimenak ere egin dituzte ikasleek:

Deba ibaiaren egoera eta herriko zenbait iturritako uraren egoera aztertzen ibili dira hango urak hartuta, ikastetxeetan egiten duten uraren kontsumoa aztertu dute. Urkuluko ur-araztegia ikustera joan dira, herri-tarrei uraren arazoaren gainean iritzia galdetu diete... Bestalde, joan den astean, ikastetxeetan gaia lantzeko eztabaidak egin zituzten: batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle eta irakasleekin, eta bestetik, Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasleekin.

EMAITZAREN ARABERA, KONPROMISOAK

Era berean, joan den astean, dokumentu bat adostu zuten egitasmoan parte hartu duten guztien artean, ikasturte guztian landutakoarekin eta ikusitakoarekin. Atera dituzten ondorioak zeintzuk diren, ikusitako beharrei aurre egiteko pentsatu dituzten proposamenak, eta hartuko dituzten konpromisoak idatzi dituzte dokumentuan.

OSOKO BILKURA BEREZIA

Orain, dokumentu hori Udalarik aurkeztuko diote, osoko bilkura berezian. Datorren maiatzaren 12an, eguena, izango da hori, 17:00etan. Besteak beste, alkateari eta zinegotziei jakinaraziko dizkiete urarekin lotuta ikusi dituzten arazoak eta konpontzeko euren iritzia emango diete.



EDURNE MUJICA

Lehen Hezkuntzako zenbait ikasle Deba ibaian hartutako ura aztertzen...

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711768

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

AGR
LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMARUAK
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiak

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 6**
Irizar. Ercueta 11 943 79 12 39
- ZAPATUA, 7**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- DOMEKA, 8**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ASTELEHENA, 9**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- MARTITZENA, 10**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUAZTENA, 11**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- EGUENA, 12**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUBAKOITZA, 13**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERITXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Igualatorioa 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegundetan egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatría 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEA**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Juan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 (meza nagusia)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (elebiduna)
12:00 (elebiduna)
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
20:00 (San Isidron)
Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera
eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
11:00 (elebiduna) |

OHARRAK

ZIGORROLAKO JAI AK
Astelehenetik, hilaren 9a, eguenera bitartean, erretiratuak briska txapelketa egingo dute, 16:00etan. Egubakoitzean, hilak 13, berriz, auzo guztia sartuko da jaietan: ikasleek danborrada egingo dute; 17:00etan, txokolate-jana eta tailerrak egingo dituzte; 18:00etan, pintxo dastatzera egingo dute; 19:00etan, buruhandiek eta dultzaina jotzaileek kalejira egingo dute. Guzti horri, erretiratuen afariak eta rock jaialdiak emango diote bukaera. Dolce Vita eta Ozen taldeak izango dira taula gainean.

GIZA ESKUBIDEEN GAINEAN
Martitzenean, hilaren 10ean, Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiko abokatu Julen Arsuagak *Giza eskubideak egungo Euskal Herriari* leloa duen berbaldea egingo du. 19:30ean izango da, Monteironen, eta Mondrauetarrrak taldeak antolatu du.

KILOMETROAK TXIKI
Bihar, zapatua, jai erraldoia egingo dute herriko hainbat gutunetara.

KONTZERTUA 3.60 ARETOAN
Bihar, zapatua, The Hot Dogs! eta Mysore taldeek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan, 23:00etan.

AEDrenAGENDA

EUSKAL KANTUEN LIBURUKKA
Seaskak kaleratutako euskal kantuen liburuxka salgai dute AEDn. Familia edo lagunarteko ospakiztunetarako aproposa da, eta 2,6 eurotan saltzen dute.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Ercueta, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoia, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Ercueta eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Ercueta, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoia eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Ercueta eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

‘Kermi’ zenari omenaldia egin zioten lagunak

Hies ekimena elkarteak eta Tunantes del Norte antzerki taldeak hiesaren ondorioz hildako Jose Ramon Hermida *Kermi*-ri omenaldia egin zioten. Laguna gogoratzeko, hainbat ikuskizun antolatu zituzten: batez ere, antzezlana egin zituzten eta baita kontzertu bat ere.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Parranderua”



—Parrandero majua eindda ago.

JON IRAEGI

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Iparraldeko ikastolen alde Herri Urrats jaiak, domekan, Senpereko lakuan ospatuko dute

Urrats biziz Euskara bizi. Lelo hori aukeratu dute Herri Urrats jaiaren 22.aldi honetarako. Datorren maiatzaren 8an, domeka, ospatuko dute. Betiko moduan, Senpereko lakuaren bueltan izango da goizetik ilunkerara arteko ikastolen aldeko jaiak. Besteak beste, Kepa Junkerak kontzertua egingo du. Halakoak eta beste kontzertu dizkigu Seaskako lehendakariorde Mixel Etxebarrik. Eta horixe da *Asteburuko Gainbegiratuan* gogora ekarriko dugun elkarriz-

ketetako bat, zapatuan eta domekan, 10:00etatik aurrera.

Horrez gainera, hamabostean behin ohi dugunez, oraingo asteburuan, Pello Zabala frantziskotarra geurean izango dugu eguraldi kontuetaz berba egiten. Hain justu ere, oraingo honetan, itsasoa izango da berbagai; besteak beste, olatuak zelan sortzen diren kontaktuko digu Pello Zabalak. Bestela esanda, eguraldiak itsasoarengan duen eragina aztertuko dugu.

HAUGIROA!

MINIMO A
Eguaztena, 27 **5 °C**

MAXIMO A
Egubakoitza, 29 **32 °C**

ASTEKO EURIA (l/m²) **0,8 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	24 °C	5 °C	— l/m²
Eguena, 28	28 °C	7 °C	— l/m²
Egubakoitza, 29	32 °C	8 °C	— l/m²
Zapatua, 30	31 °C	10 °C	— l/m²
Domeka, 1	31 °C	11 °C	— l/m²
Astelehena, 2	28 °C	12 °C	— l/m²
Martitzena, 3	23 °C	9 °C	0,8 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko gainbegirata: Mixel Etxebarri, Herri Urrats; Pello Zabala, ISS: soa...

DOMEKA
10:00 Asteko gainbegirata.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Elkarrizketak.
Zozketak, e.a...

- 11:05 Musika
- 12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
- 12:20 Zorion agurren tartea. Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
- 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
- 14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Alkate batzuek esan daue ez daukiela homosexualak ezkonketako asmorik.



AMAIA ZUBILLAGA
Ikasle



LOURDES ARRUABARRENA
Langillie




ANTONIO VITA
Langillie



AITOR MENIKA
Langillie



MAIXA BELARZUAGA
Etxekoandrie



ENRIQUE ALONSO
Langillie

Txarto pentsetan jat, danok garelako gizakixek, eta danok euki biherko geukelako eskubide iguelak. Pertsona horreik, alkate moduen, zerbitzu bat emun biher daue.

Pertsona bakotzak eskubidie dauko gure dauen moduen pentsetako, baiñe alkate bat ezin da hor geratu. Herritarren eskubidiek defendiruteko dau, eta horren alde lan egitteko.

Legiek esaten badau pareja homosexualak ezkontzeko eskubidie daukiela, alkatek hori bete egin biherko dau, bere lana da-eta. Edo bestela, delegau deixela lan hori eta kitto.

Alkatek, pertsona moduen, gure dauen iritzixe euki leike, baiñe herri bateko buru moduen ardura batzuk bete biher dau. Legiek esaten dauena beteten ez badau, kartzelara, ala? (Barre)

Alkatek horreik lanok egitteko kobretan daue, eta iritzi pertsonalak euren dako gorde biherko leukie. Toketan dien lanak egitteko dauz, euren dako ondo ala txarto egon.

Horreik alkatek ez dauz burutik ondo. Pertsona bakotxa dan modukue da, eta holaxe errespetau biherjako. Ez badaue lan hori egin gura, itxi deixela kargue beste batendako.

USTEAKUSTE

TXALOAKETATXISTUAK

HERRITARRENBERBAK/ Nerea Makazaga

Hizkuntza

Orain dela gutxi Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aditzera eman du EAEko 16 urteko ikasle gehienak ez direla euskaraz moldatzeko gai. Harrituta utzi naute emaitza horiek. Ez nuen uste oraindik horrela geundenik. Hizkuntzaren eta hezkuntzaren gaineko aditu batzuek horren gaineko hausnarketak egin dituzte, eta plazaratu egin dituzte. Batzuek uste dute hizkuntza-ereduak kale egin duela, eta ez dituela aurreikusitako emaitzak eman; beste batzuek uste dute hain txikitatik ingelesa irakatsi beharrean euskararen aldeko ahalegin handiagoa egin beharko dela...

Estatistikak eta azterketak ez dira beti fidagarriak izaten, baina gogoan daukat joan den urtean Kike Amonarrizek Arrasateko gazteekin euskararen gaineko tailer bat egin zuela. Amonarriz arduratuta gelditu zen hemengo gazteek euskararekiko erakutsi zuten jarrerarekin.

Ni ez naiz euskararen eta horren erabileraren gaineko aditua, baina jakin badakit, zorritzarrez, nerabezaroan euskaraz egitea baino gurago izaten dugula gaztelaniaz egitea, hori *enrollatuagoa* balitz moduan. Niri ere gauza bera gertatu zitzaidan. Hobe litzateke egiten gabiltzanaz jabetuko bagina.



TXISTUAK PAPERONTZI GUTXIEGI Eguraldi onarekin batera, arrasatearrak hasi dira herriko parkeetara igotzen eta egonaldiak egiten, eguzkiaz eta giro onaz gozatzeko. Horietako batek aditzera eman digu, joan den astean, behingoz Monterronera joan beharrean, Santa Barbarara joan zela. Gustura egon zen bertan, baina kexa bat helarazi digu han ikusitakoaren gainean. Herritar honen esanetan, parke ia osoan ibili ondoren ez zuen ia paperontzirik aurkitu. Udalak paperontzi gehiago jarri beharko lituzkeela uste du.

ASTEKODATUA

140

LAGUNEK EGINGO DUTE LAN KILOMETROAK TXIKI JAIAN

Bihar, zapatua, Arizmendi ikastolak kilometroak txiki jaia egingo du Arrasaten. Aurreko urteetako Ikastolaren eguna baina osatuagoa egingo dute aurten, eta ekintzak hainbat gunetan banatuko dituzte. 140 lagun, batez ere irakasleak, ibiliko dira lanean.



Erretzaileen pekatua

Oraindik oroitzen naiz lehenengo zigarroa dastatu genuen egun hartaz, ez dut uste heldutasunaren izenean egin genuenik, ez nik behintzat. Baina ezkutuan aritze horrek zer-nolako zirrara bat pizten zigun. Gutxi falta izan zen bihurrikaria haren eguna sermoian amaitzeko, baina artean ama erretzaille sutsua genuen eta harrapatu bagintu ere, nor zen ba bera inori erretzea debekatzeko?

Badirudi ezkutuan erretzeko garaiak itzuliko direla. Institutuan gertatzen zen legez, komunak fumigazio gela bihurtuko dira. Erretzeari utzi diotenen zifrak gora besterik ez du egiten, zigarroaren kalteak direla eta, paketearen prezio altuak direla eta... Hala ere, erretzaileen kopurua kontuan hartu beharreko datua da.

Taberna eta leku itxietan erretzearen politika erreprentatzen eta zorrotza, beste lurralde batzuetan aplikatu dutena, ate joko dugu geurean ere. Badut

lagun irlandar bat Cadiz alde horretan eta inoiz hitz egin izan dugu gai honen inguruan. Bere esanetan, orain gazteek taberna zuloatik irten eta kanpoan pasatzen dituzte orduak. Farola itxurako berogailuen inguruak neguko hotza gozotu eta erretzeko gune apropos bilakatu omen dira. Baina imajinatzen al duzue Zurgin kantoia (besteak beste) guztiz kolapsatua, berogailuak direla, erretzaileak direla... Lehenik eta behin, herria berregituratu beharko genuke tabakoaren irtenbide izan litekeen aukera

hau gure egiteko; eta ez dut uste hau gertatuko denik.

Ez dakit zer gertatuko den egun hori iristen denean, baina batek baino gehiagok kea botako du burutik. Nik, badaezpada, nikotinazko txikleak salgai jartzea gomendatzen diet tabernariei. "Atera bi garagardo eta kalimotxo bat. Ah, ta dozena bat txikle zain dauden hamaika horien aurretik sartu ahal izateko komunera!"

"Badirudi ezkutuan erretzeko garaiak itzuliko direla. Institutuan moduan komunak fumigazio gela bihurtuko dira"

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Karmele Etxabe

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Arkaitz Garmendia, Real Union taldeko jokalaria bati baloia kendu guran.

GOIENKARIA

KIROLA/ Mondrak Oriokoren eta Urolaren kontra jokatu du datozen bi jardunaldietan.

Datozen bi asteotan, Aretxabaleta eta Bergara Mondraren alde

XABIER URTZELAI

Aretxabaletako Ibarra futbol zelaian eta Bergarako Agorro-sinen aspaldidanik dabilta kontuak ateratzen. Datozen bi asteotan, ibarreko bi talde horiek Mondra futbol taldearen alde egingo dute, behingo-agatik bada ere.

Mondrak Oriokoren kontra jokatu du asteburuan, eta Urolaren zelaira joango da gero. Kontua da, bi talde horiek atzeko postuetan daudela, eta Aretxabaletaren eta Bergararen aurkari zuzenak direla. Joan den astean irabazita,

UDAKoek nabarmen egin dute gora, baina Bergarak laguntza guztiak beharko ditu. Ahalik eta goren geratzeko helburua du Mondrak, eta geratzen diren lau partiduetako bi behar gorrian dauden taldeen kontra jokatu beharko dituzte.


MUGARRI ALKESAK, AZKENA

Mugarri Alkesa saskibaloitaldeak Iruñean jokatu du aurtengo denboraldiko azken norgehiagoka, Larraonan. Iturripen jokatu zutenean Consmetal ez zen aurkari izan, baina Arrasateko taldeak ez du Federazio Kopa gura moduan amaitu. Bestela,

aurrealdean ibili beharko litza-teke, Tabirakorekin batera.

AGRK EZ DU AZKENEKO HITZA ESAN

AGR Arrasate eskubaloitaldeak oraindik ez du amore eman, ezta gutxiago ere. Martitzenean Gasteizko Bimila taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak, eta horrekin batera, Donibane eta Deusto Loiola taldeek egingo dutena zaindu beharko dute. Bi talde horiek oraindik elkarren kontra jokatu behar dute, eta dagoeneko Bidasoa-Irun inork harrapatuko ez badu ere, bigarren postua nork beteko duen erabaki barik dago.



Herri Arteko Pilota Txapelketa, gaur

Arrasateko eta Lezoko pilotariak gaur, egubakoitza, jokatu dute Herri Arteko Txapelketako partidua (19:30ean, Uarkapen). Arrasatekoek abantaila polita dute, joaneko partiduetan, Lezon, 2-1 nagusitu ziren-eta. Kadete eta senior mailako pilotari arrasatearrek erraz irabazi zuten, eta gazte mailan 22-14 galdu zuten Jimenezek eta Urribarenek. Errebatxa hartzeko gongoz egongo da bikotea, eta gainontzeko biak Lezon egin zutena errepikatzeko asmoz kantxaratuko dira. /X.U.

LABUR

Pou anaiak, Oier Zearra eta Imanol Agirre MUK antolatu dituen kirol hitzaldietan

Mondragon Unibertsitateak bi berbaldi antolatu ditu datorren astelehenerako, hilak 9, eta martitzenerako, hilak 10. Astelehenean, Pou anaiak azken proiektuaren gainean egingo dute berba, *7 parte ta 7 kontinente*. Munduko paretarik nagusienak eskalada librean igotzea dute helburu, eta dagoeneko egin dituzte bi etapa.

Oier Zearra eta Imanol Agirre pilotariak, berriz, profesionaletan izan duten esperientziaren gainean egingo dute berba martitzenean, eta nola bateratzen dituzten goi mailako ikasketak eta profesional izatea.

Bi berbaldi horiek Oñatiko Enpresa Zientzien fakultatean egingo dituzte. Astelehenekoa 11:00etan egingo dute, eta martitzenerako hitzaldia 17:00etan izango da.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

PARTIDUAK

MAIATZAK 7, ZAPATUA.	EPAILEAK
11:00: La Kuadrilla - AT Celaya.	Betrayer.
12:00: Betrayer - Tomahawk.	La Kuadrilla.
13:00: You Know! - Irati Taberna.	Tomahawk.
16:00: Saukelu Scre - Manhattan.	HLB 108.
17:00: HLB 108 - Torpedo Musak.	Manhatt.
18:00: Iriztu Tab. - Ekipo Aldeano.	Torpedo.
MAIATZAK 8, DOMEKA.	EPAILEAK
11:00: Fuxion - Dribling.	Abokajarro.
12:00: AT Celaya - Abokajarro.	Dribling.
13:00: Lasagabast. - AC Surcos.	AT Celaya.
Deskantsua: Billy & The Cowboys.	

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. Saukelu Scream	26	16
2. You Know!	25	16
3. Betrayer	24	16
4. AC Surcos	24	17
5. Irati Taberna	22	16
6. Iriztu Taberna	22	16
7. Lasagabaster	22	16
8. Dribling	20	16
9. AT Celaya	16	15
10. Billy & The Cowboys	14	16
11. La Kuadrilla	13	16
12. Torpedo Musakola	11	16
13. Abokajarro	11	16
14. Fuxion	11	16
15. H.L.B. 108	10	16
16. Tomahawk	10	16
17. Goma2	10	16
18. Manhattan Pippol	8	16
19. Ekipo Aldeano	5	16

LEHENENGO FASEAREN AMAIERA, GERTU

HURRENGO FASERA SAILKATZEKO AZKEN AHALEGINAK

Dagoeneko hemezortzigarren jardunaldia izango da asteburukoa, nahiz eta partidu asko dauden atzeratuta. Lehenengo fasea badao aurrera, eta datozen asteotan bigarren fasea sailkatzeko azken ahalegina egin beharko dute taularen erdialdean dauden taldeek. Oraingo asteburuan, sailkapenari begiratuta, badirudi You Know! eta Irati taberna taldeek jokatu duten norgehiagoka izango dela erakargarria.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

SASKIBALOA

Consmetal - Mugarri Alkesa

Lehen maila. Zapatua. 18:00. Iruñean.

Mugarri Alkesa - Araneta

Juniorrak Mut. Zapatua. 18:00. Musakolan.

FUTBOLA

Mondra - Orioko

Preferentea. Zapatuan. 16:30. Zubietan.

Union Txiki - Mondra

Ohor. Gazteak. Zapatuan. 12:00. Fanderian

Arrasate - Amara Berri

Gazteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.

Arrasate - Bergara

Ohor Kadet. Zapatuan. 10:00. Atxabalpen.

Eibartarrak - Arrasate

Infantilak. Zapatuan. 18:30. Unben.

Mutriku - Mondra

Neskak. Domekan. 17:00. San Miguelen.

ESKUBALOA

AGR Arrasate - Bimila

Igoera fasea. Martitzena. 20:30. Iturripen.

Aldaketa 16 - Arrasate

Gazteak nesk. Kopa. Zapatuan. 17:15. Zarautzen.

Gatz Museoa - Egia Servi. Chap.

Gazteak mut. Kopa. Domekan. 11:00. Iturripen.

Bergara - Arrasate

Kadeteak. Domekan. 10:45. Labegaralean.

ARRASATE-OÑATI LASTERKETA

Zapatua. 18:30ean. Garibai Etorbidean.

GINNASIA ERITMIKOA

Gipuzkoako A mailako Eskola Arteko Txapelketa.

Dragoi Taldeko hamar gimnasta izango dira.

bihar, Bergaran.

JAIA/Ikastolaren Eguna Kilometroak 05 Txiki izango da aurten

Bihar, zapatua, Ikastolaren eta Kilometroen aldeko jaia egingo dute gunetan banatuta

IKER BARANDIARAN

Arizmendi Ikastola gogor dabil urriko Kilometroak 05 antolatzen. Hori baino lehenago, Ikastolaren eguna dator. Hori ere ospatzea erabaki dute, eta ohikoa baino egitarau handiagoarekin, gainera. Ekitaldiak guneka banatu dituzte, Kilometroak 05 Txiki izenpean.

Bihar, zapatua, Arizmendi Ikastolaren eguna da. Hala ospatu ohi dute Arizmendi sortu zutenetik, eta jai hori lehendik dator. Azkeneko lau urteotan Arrasaten ospatu ohi dute, eta ekitaldi guztiak Ferixalekuan eta Seber Altuben egin izan dituzte.

Aurten, berriz, jai handiagoa eta bereziagoa egin gura izan dute. "Kilometroak dela eta, aurtengo urte berezia da, eta beste zerbaite antolatu gura genuen. Kilometroak antolatzeko daukagun egitura bera erabiltzea erabaki genuen, hau da, azpitaldeka lan egitea. Orain arte oso emaitza onak ematen dabil", azaldu zigun Kilometroen antolakuntzan dabilen Leire Aranak.

Are gehiago, aurtengo Ikastolaren eguna Kilometroak 05 Txiki moduan izendatu dute. "Ekintzak zazpi gunetan banatu ditugu, eta guretzat urrian egingo dugunaren entsegu antzeko bat da", azpimarratu zuen Leire Aranak.

IKASLE ETA IRAKASLEAK, LANEAN

Egunean bertan 140 bat lagun ibiliko dira lanean, batez ere, irakasleak. Baina aurretik prestakuntza lanak egin behar izan dituzte. Azaldu digutenaren arabera, Derrigorrezko Bigarren



Aurtengo Ikastolaren egunean, askoz ekintza gehiago egingo dituzte.

Hezkuntzako 4.mailako eta Lanbide Heziketako ikasleek lan handia egin dute. Hain zuzen ere, eurak arduratu dira areto-futbol txapelketa, herri-bazkaria, antzerki ikuskizuna eta kontzertuak antolatzeaz.

Antolatzaileek uste dute ibarreko ume, gaztetxo eta heldu asko etorriko direla zapatuan Arrasatera. Eta, egia esanda, ekintza ugari antolatu dituzte. Izan

ere, goizetik hasi eta arratsaldera arte ez da ia atsedenik egongo.

ANTZEZLAN BITXIA AURKEZTU

Ekitaldi gehienak txikiendako egin dituzte, baina bada bestelakorik. 11:00etan txupinazoa botatzearekin bat hasiko da jaiak.

Nabarmenezkoa da, besteak beste, joan den asteburuan hainbat ikasle Alemanian egon zirela antzezlan bat eskaintzen, eta

hori ikusteko aukera izango dela. Ikuskizunak *Unseres ist eures* izena dauka, eta umore tonuan egingo dago. Are gehiago, ikasleek mimoa, aleman apur bat eta bertsoak uztartzen dituzte. Juan Montiano idazle arrasatearrak egin du gidoia, eta herri kirolen eta hemengo usadioen gainekoa da. Izaskun Zubizarretak eta Olatz Pagaldaik egin dituzte zuzendaritza lanak.

KMK TXIKI EGITARAU

FERIXALEKUAN

11:00: Txupinazoa, Eskulan tailerrak, Yumpinga, Grafitia...
11:00: Teknologia erakusketa, eta Argazki lehiaketa.
12:00: Tortilla lehiaketa.
14:00: Sari banaketa.

MONTEIRONEN

11:30: La Monda Lironda pailazoak
Dinosauruen egitasmoa.
12:00: Arku-tiroa.

HERRIKO PLAZAN

12:30: Bertsolariak: Jokin Labayen, Enaitz Alustiza eta Ander Lizarralde.
13:00: Argitxoren urtebetetze jaiak.
13:30: Euskal dantzak.

SAN VIATOR TXIKIN

14:30: Herri-bazkaria.
18:00: Antzerkia. *Unseres ist eures*.

JARKAPEN

11:00: Artisauak.
12:00: Erreleboak.

SAN VIATORREN

11:30: Areto-futbol txapelketa.

GAZTETXEAN

19:00: Ikasleen kontzertuak: Scam, The Ruders, Piko y Pala eta Mala Hierba.

IBILBIDEAN ZEHAR

Egun osoan: Erraldoiak, kilikiak eta trikitilariak.
12:45: Igelaren jokoa. **Monterron.** Hankapaloak. **Uarkape.** Globoak. **Seber Altube.** Zakuen jokoa. **Plaza.**

BESTELAKOAK...

Dendak: Kilometroak, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Bigarren eskuko azoka, Harreman GKE...
Gastronomia elkartearen txosnak.

Ekitaldi ugari, Corazón de Encina elkarteak Kultura Astearen bukaeran

I.B.

Arrasateko extremaduraren Corazón de Encina elkarteak Kultura Astearen bukaeran jaiak antolatzen ditu urtero. Urteko hitzordu garrantzitsuenetako bat izaten da Kultura Astea.

Joan den domekan, hilaren lehen, hasi zuten. Ohorezko erregina eta damak aukeratu zituzten. Aste barruan, berriz, dene-

tatik izan dute San Andresko egoitzan, batez ere gaztetxoendako: Marcelino Segovia margolariaren erakusketa, eta marrazki, margo, mahai-futbol, tortilla, poesia eta erredakzio lehiaketak, besteak beste.

ASTEBURUAN, AZKEN TXANPA

Gaurtik, egubakoitza, domekara arte, berriz, heldu zein gaztetxoendako ekintzak egingo dituzte, Kultura Astea dotore bukatzeko. Gaur, egubakoitza, Ernesto Rodriguez adituak Extremadurako ibilbide turistikoaren gaineko berbaldea egingo du, 19:30ean. Horren ostean, Los Chambras taldeak musika ikuskizuna egingo du.

21:15ean, indarrak berreskuratzeke, saiheski jana egingo dute elkartearen terrazan, eguraldia lagun badute behintzat. Bestela, barruan egingo dute. Horren ostean, elkarteak Isabeles taldeak ikuskizuna egingo dute.

Bihar, zapatua, besteak beste, folklore eta musika jaialdia egingo dute, 17:30ean. Tarama eta Juana eta Loli taldeek esku hartuko dute, baita elkarteak playback taldeak ere. 22:00etan, herriafaria egingo dute, eta horren ostean, dantzaldia Gardokirekin.

Etzi, domeka, musika ikuskizunak, eta lehiaketetako finalak eta sari banaketak izango dituzte.



Corazón de Encina elkarteak joan den astetik ospakizunetan dabilza.

AINZANE AGIRRE

BOTEPRONTUEN

Oskar Vitoria

OSKAR VITORIA BITXITEGI LANTEGIA

XABIER URTZELAI

Badie 25 urte bitxixekin lanien dabilhela, eta oin semiekin osatu dau taldie. Oskarrek esaten dauen moduen, lanbide horretan konfiantzako jentiek egin biher da lan, diru asko balixo dauen piezekin ibiltten dielako. Materixala Bilbotik ekarten daue, eta zelako materixala, gaiñera.

Erregalo bat egittekotan nabil.

Neska batendako baldin bada, belarritzeko polit batzuk. Urre zurikuek, diamantezkuek, Austhai perlak... Ikusi egin biher.

Diamantie daukizue logo moduen, holako diamantiek saltzen dozue?

Holako diamante bat gure badozu, problema barik ekarriko dotzut.

Eta esaldixek esaten dauen moduen, diamantiek bizi guztirako die?

Hori esaten daue ikatz bihurtetako denpora asko biher dalako, eta oso materixal gogorra dalako. Eta, gastaute dauenien be, igarri egitten dalako diamantie dala, beste brillo bat eukitten dauelako.

Euki dozuen bitxi karuena?


Ez neuke jakingo esaten. Oin mahai gaiñien dauketenak be asko balixo daue. (Kajoitxo batetik perla poltsatxo bat atara dau Oscarrek, bakotzak 300 euro inguru balixo dau, eta urre laminatxo batzuk be pixatu dou. Milla eurotik gora balixo daue. Bistan da lankidiengan konfiantzie euki biher dala).

Zelan egitten dozue lan?

Batetik, pieza barrixek egitten dou. Erastunek, belarrittekuek, lepokuek... Eta, bitxixek konponketan be ibiltten gara.

Kontuz egin biherreko lana izengo da.

Argi dau kontu haundixekin ibilli biher garela, asko balixo dauen gauzekin egitten douleko lan. Baiñe, ezin zara horretan pentsetan ibilli, ezingo geukelako lana gustora egin. Hori bai, piezaren batekin lanien hasten nazenien gustetan jat horretan bakarrik kon-



X.U.

"Pieza batekin lanien hasten nazenien biherrezkue da horretan bakarrik kontzentretie"

tzentretie; hori oso inportantie da. Eta horretan lagunketan dust semiek, negozioko beste arlo batzuk atendiruten dauelako.

Erregalora bueltaute, "ekonomikuaue" egitteko aukerie egongo da ba.

Bai, bai. Dendiek dauken itxuriagaittik edo, batzuk bilddurrakin etorten die, baiñe ez dau problemarik, gauza ekonomikuauek be egin geinke-eta.

Babes neurri haundixek daukizue.

Biherezkuek dielako. Hamen ez da problema haundirik egoten, baiñe kontuz ibilttie komeni da. Madril aldien, barriz, asegurado-rak ez dauz bape pozik.

"Hemen, ezinbestekue da lankidiengan konfiantzie eukittie, piezak asko balixo daue-eta"

Zer da zuon laneko gauza txarrena?

Ordu asko eskaiñi biher jakola. Neuk egunien hamar ordu inguru egitten dot lan, baiñe lana eukittie sekule be ez dau sobran.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Hemengo jentieri lasaitasun apur bat.

Eta ze dauko ona?

Mondraguek gauza asko dauko onak.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Ez dot pelikula askorik ikusten / Kataloguek begiraketan dot, eta azkar-azkar/ Oin, semiek itxitteko Koma taldie dauket kotxien.

NIREBIDAIAHURA/ Maite eta Mainer

Venezuelara / 2005eko urtarriletik otsailera arte

Supi-ko uholdeekin batera utzi genituen joan den astean Maite eta Mainer. Eurak, baina, ordurako Maracaibon ziren, uholdeetako irudiak telebistaz ikusten: "Supi-tik itzuli ginenean, baina, ezagutzen ez genituen 25 lagun genituen etxean. Eraikin publiko batean geunden, eta dokumental bat egitera etorri ziren ikasleak sartu zituzten gure etxean. Nahikoa lan izan genuen eurekin. Lo egiteko aire giro-tua jartzen zuten topera, eta guk ezin genuen horrela lo egin. Eta bazkaltzen edo afaltzen ari ginenean guztiak egoten ziren guri begira".

Azkenean lortu zuten etxean lasaitasun apur bat, eta baita asteburu bat indigenekin igarotzea ere: "Irakaslea zen lagun baten bitartez joan ginen indigenen komunitate batera, Guajira-ra, hain zuzen. Oso gustura izan ginen eurekin. Gonbidatuak ginenez, lehenengo guk bazkaltzen genuen, eta gero eurak. Arroza, entsalada, koko zukua, patata frijituak, antxumea... Dauzkaten ohituren gainean ere egin genuen berba, eta konturatu ginen hemen izan diren ohitura batzuen antzekoak dituztela. Adibidez, senargaiak ezkondu ahal izateko daukan guztia eman behar dio emaztegaiaren familiari. Horrekin batera, ohitura daukate norbait hiltzen denean hildakoaren izenean bazkari handi bat prestatzeko. Eta hil dena ezagutu ere egiten ez zuen jendea azaltzen da bazkari horietara".

Beste asteburu baten, Mainerrek eta Maitek Andeetara joateko asmoa bazuten ere, kostaldean izan ziren uholdeek sortutako sarraskiak medio, lanean geratu ziren: "400 lagun hil ziren uholde horietan, eta laguntzeko kampanak jarri zituzten abian. Eskoletara jendeak ahal zuena ekartzen zuen etxetik, gehien behar zutenei bidaltzeko. Eta Andeetara joateko gogoarekin geratu ginen". Hori, baina ez da arazo handia, Arrasateko lagun bi horiek argi dutelako Venezuelara itzuliko direla: "Maracaibora ez, baina kostaldera edo komunitate batera gustura itzuliko gara".

XABIER URTZELAI



Guajirako umeekin hondartzan ateratako argazkia.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goitiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82

Txuringo
Jatetxea

Maiatzaren 1etik aurrera
igandeetan zabalik

Osintxu auzoa • Bergara • Tel.: 943 76 48 63



SCHUMACHER BAT BAINO GEHIAGO SAN ANDRESEN

Joan den asteburuan egin zituzten San Andres auzoko jaiak, eta auzokoek antolatu zituzten ekintza guztien artean, gaztetxoek Bedoñabe herri eskolan jarri zuten kart-ekin gozatu zuten gehien. Autoei neurria hartzeko itzuli bat baino gehiago egin eta gero, asteburuan Montmelon egingo duten lasterketan esku hartzeko moduan dagoela erakutsi zuen batek baino gehiagok. Horrekin batera, eguraldiak lagunduta gainontzeko ekitaldiek ere erantzun ona izan zuten. Dantzaldi eta etxfuegoez gainera, museoa ere izan zuten, Etxaluze baserria zabalik egon zen-eta.



HUHEZIKO TALDEAK 6000 EURO IRABAZI DITU UNIBERTSITATEEN ARTEKO HERRI-PROBETAN

Mondragon Unibertsitateko talde onena izanda, Huhezitar horiek Donostian izan ziren joan den egubakoitzean, Euskal Herriko unibertsitateen arteko herri kirol txapelketan MU ordezkatzeko. Orain dela hilabete inguru Iturripen eman zuten neurria, eta finalerako sailkatu ziren. Eta bistan da Donostian ere beste horrenbeste egin zutela. Hala, lehenengo postua

eskuratuta, argazkiko talde horrek sei mila euro irabazi ditu behar den moduko bidaia egiteko. Ikasketak amaituta lana topatzea ez da batere erraza, baina argazkiko bost neskek eta bost mutilek osatutako talde horrek badu etorkizuna. Perurena aita-seeekin eta Haimar Irigoienekin, plazarik plaza. Diotenez diru mordoia irabazten dute herri-probak egiten dituztenek. Gozatu saria!!!



GOIKOBALUK ASTURIASKO ENTZULEAK TXUNDITU ZITUEN

Goikobalu abesbatzako lagunak Sotrongion (Asturias) izan dira asteburuan. Berez, laster egingo duten Herri Meatzarien Abesbatza Lehiaketarako gonbidatu zituzten, baina arrasatearrak ezin ziren data horretan joan. Hortaz, Sotrongioko eliza nagusian abestea eskaini zieten, eta zapatuan egin zuten kontzertua. Eliza nagusia goraino bete zuten eta euskal musika, andaluz eta italiarra uztartu zituzten. Entzuleak txundituta utzi zituzten eta txalo zaparrada ederra jaso zuten. Are gehiago, gonbidapena egin zieten Avilesko Abesbatzen Lehiaketan esku hartzeko.

BEDOÑABE HAURRESKOLA


(0-2 urte bitarteko umeendako)

2005-2006 ikasturteko matrikulazio epea zabalik

Noiz: maiatzaren 3tik 18ra

Non: Arrasateko Bedoñabe Haurreskolan (Alfonso VIII kalea, San Andres auzoa)

Tel: 943 79 76 86



GUREGAIK/ GOMENDATZEN DIZUT LEHIAKETA

Eider Montalban izan da irteeren gaineko sariketaren irabazlea

IKER BARANDIARAN

Udaleko Gazte Sailak Gomendatzen dizut sariketaren bigarren edizioa antolatu zuen. Joan den astean zozketa egin zuten zuzenean Arrasate Irratian. Irabazlea 22 urteko Eider Montalban da.

Joan den urtean Arrasateko Udaleko Gazte Sailak Gomendatzen dizut izeneko sariketa asmatu zuen. Haren helburua da bidaiariek ikusi dutenaren gaineko gomendioak egitea, eta informazio hori beste lagun batzuek baliagarria izatea. Informazio guzti hori Gazte Bulegoan batu-ko dute, eta edozeinek izango du eskura irteera bat prestatzeko orduan.

Parte-hartzaile guztien artean zozkatzen dute aterpetxe baten asteburuko egonaldia. Joan den udan egin zuten lehenengo aldiz, eta ekimenak oso harrera ona izan zuen. Are gehiago, Bergarako Udaleko Gazte Sailak ere bat egin zuen ekimenarekin. Aurten, Aste Santuaren bueltan errepikatu

*Honen bidez,
gomendio gehiago
jaso dituzte Gazte
Bulegoan. Han
daude eskuragarri*

katzea erabaki dute, eta hainbat gomendio jaso dituzte.

ZOKKETA IRRATIAN, ZUZENEAN

Joan den astean, Gazte Bulegoko arduradun Dorleta Kortazarrek eta Arrasate Irratiko arduradun Aitziber Aranburuzabalak zuzenean egin zuten zozketa irrastian bertan. Izan ere, astero Gazte Sailak herriko irrastian duen saioa baliatu zuten horretarako. Irabazlea 22 urteko Eider Montalban da, eta aterpetxe baten egonaldia jasoko du sari moduan.

Gazte Sailak emandako datuen arabera, edizio honetan hamahiru gomendio jaso dituzte



Arrasate Irratian egin zuten zozketa, zuzenean, eta entzuleez gain, GOITB eta ARRASATE PRESS izan ziren lekuko.

Arrasaten. Guztira, bost neskak eta hiru mutilek esku hartu dute -lagun bakoitzak gomendio bat baino gehiago aurkez dezake-, zortziak 22 eta 34 urte bitartekoak. Gomendio guztiak euskaraz idatzita daude eta, bitxikeri moduan, guztiak posta elektronikoz jaso dituzte.

Gomendio motari dagokionez, gehienak eraikinen edo

lekuen gainekoak izan dira, baina baita ostatuen edo jateko tokien gainekoak ere. Bisitatuko herrialdeei dagokionez, parte-hartzaileak leku askotan ibili dira: Euskal Herrian (Markina-Xemein, Ibarangelu, Erratzu), Espainiako Estatuan (Segovia, Panticosa), Ingalaterran, Turkian, Kuban, Kolonbian, Hego Korean, Txinan eta Kongon.

Gazte Bulegoko arduradunek azpimarratu dute gomendio guztiak ongi etorriak direla. Ez dagoela gomendio hobeagorik edo txaragorik. "Guztiak dira baliagarriak, atzerrikoak edo albotko herrikoak. Edozein informazio mota da baliagarria irteera edo bidai bat egin gura duenarentako". Lehiaketa klasiko bilakatu da herrian.

The Hot Dogs! taldea sasoiaren dagoela ikusteko aukera 3.60 aretoan

I.B.

Urretxu-Zumarragako The Hot Dogs! taldea eszenatokietara itzuli da ia lau urteko atsedenaldiaren ostean. Berriro batu zirenetik Espainia aldean ibili dira, batez ere. Bihar, zapatua, 3.60 aretoan izango dira.

Arrasaten hain gustuko zuten The Hot Dogs! talde glam eta rock-and-rolleroak atseden luzea hartu zuen 2001ean, *The powerhouse* diskoa kaleratu eta denbora oso gutxira. Taldeak gero eta arra-

kasta handiagoa zuen, baina azkeneko bi urteak erritmo bizian, handiegian, igaro zituzten, eta ezin izan zuten horrela jarraitu. Hortaz, banatu egin ziren.

BESTELAKO PROIEKTUAK, BITARTEAN

Taldea desegin ondoren, Jon Iturbe abeslari berdingabeak bakar-kako ibilbidea egin zuen eta *Sudden deaths* diskoa kaleratu zuen Galiziako El Beasto diskoetxearekin. Kutxan gordeta zeuzkan abesti lasaiagoak airatu zituen, eta musikagile fina dela erakutsi zuen. Bien bitartean, The Hot

Dogsleko hiru lagunek (Iñigo, Uri eta Iker) Dirty Jackets talde rockeroa sortu eta hainbat kontzertu egin zituzten, baina ez zuten luzaroan jarraitu.

INDARBERRITUTA ITZULI DIRA

Iazko irailean The Hot Dogsleko bost lagunetatik lau batu (bosgarrena Madrilen bizi da) eta kide berri baten laguntzarekin, entseguak egiten hasi ziren. Hainbat kantu berri idatzi dituzte, eta dagoeneko Ponferradan, Teruelen, Bergaran eta Durangon jo dute oso harrera onarekin.



The Hot Dogs! taldekoak ez dira asko aldatu.

kelnara
banda zabala

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

Muruko antena etxetik ikusten baduzu, banda zabaleko eta kablerik gabeko internet zerbitzua izan dezakezu!

Horrela, hauek guztiak egin ahal izango dituzu etxetik bertatik herrira hurbildu gabe:

- **Goiena.net:** bailarako berriak, blog zerbitzuak... - **Banketxeko** tramiteak... - **Udalarekin** kontsultak...
- **Hezkuntza:** matrikulazioak, noten kontsulta... - **Aisialdia:** ekitaldietarako sarrerak... - **Erosketak** interneten...

Informazio gehiagorako, deitu telefono honetara: 943 79 81 91 (Kelnara)

Seinalea jaso dezaketen auzoak: **Aramaio** (Untzilla, Azkoaga, Barajuen, Gureia, Zabola, Arexola, Etxaguen eta Gantzaga). **Aretxabaleta:** Aozaratza, Oro, Larrino, Izurieta, Galartza, Arkarazo eta Arenaza. **Eskoriatza:** Apotzaga, Mendiola, Bolibar eta Gellao. **Arrasate:** Udala, Bedoña, Garagartza eta Gesalibar. **Leintz-Gatzaga.**

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

BANEKI

Debagoieneko
gaztetxoan saioa

Astelehen eta eguenetan
21:00etan

Aurkezlea:
Mikel Aranburu



Ikustekoa!

BANEKI
Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

Eroski Bidaiak, Bocatta, Florida eta Guridi, Ikastolen Elkartea.

Zozketa

Uztaileko finaleko
talde irabazleak
PORT AVENTURARA
bidaia zoragarri bat
irabaziko du!

BANEKI

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zein urtetan hasi ziren Seber Altube eta inguru hura guztia berritzeko lanak? Arrastoa: hamar urte baino gutxiago pasatu dira.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN** ARRASATE PRESSERA!

Font Vella ur botila
1,5 litro

0,39€ 65 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

J. ANTONIA ERIZ endako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, J. Antonia! Galderen erantzun zuzena: **Roneo lantegia.**

ERRETRATUZAHARRA

Aitzorrotzeko maiatzeko erromeria

Joan den domekan, Aitzorrotzen jaia ospatu zuten. Ehunka debagoiendarrek bat egin zuten hango zelaietan. Tartean, Arrasateko parroko Jenaro Lekuonak meza esan zuen.

Aspaldiko ohitura da Aitzorrotzen erromeria-eta egitea. Maiatzeko lehenengo domekan izaten da hori. Horren irudi dugu oraingo asterako utzi diguten argazki zahar polita. 1964ko maiatzaren lehenengo domekoa da. Gure berriemaile Marga Txantxotek kontatu digunez, argazkian agertzen den neska koadrila hori Arrasatekoa da. Arrasaten Udalatx Egunera joateko ohitura dagoen moduan, argazkiko koadrilak ohitura zuen Aitzorrotzeko jaira joateko. Arrasatetik Eskoriatzaraino trenez joaten ziren eta gero, motxila hartu eta mendian gora. Ez zuten aspertzeko astirik izan egun hartan. Aitzorrotzera iritsi eta meza entzun zuten lehenengo, gero ogitartekoa jan zuten eta eguna borobiltzeko, nekatu arte erromerian dantzan ibili ziren.



Honako hauek dira argazkikoak: goian, ezkerrean, Arantxa Heriz eta eskuman, Beatriz Larrañaga.

Haien azpian zütik dagoena, berriz, Begoña Egidon da eta haren ondoko hirukotea osatzen dutenak Arantxa Etxebarria, Elena Gorostiza eta Espe Azkarraga dira.


Bestalde, izkina batean belauniko dagoen neska hori Puri Zubia da. Eta elkar besarkatzen dabiltzanak, berriz, Marga Zubia, Pili Garro eta Marije Ezkurra, hain justu ere. Gero, Marga Txantxote dator, Elena Ugalde da hurrengoa eta Mertxe Jauregialtzo da azkena.

Bukatzeko, aurrean etzanda dauden biak Rosa Maria Azpilikueta eta Begoña Bengoa dira.

Argazkia eta informazioa: Marga Txantxote. Urtea: 1964.

Etxeko konponketak

Elektrizitatea

 **Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak
Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxa: 943 79 11 35

Eraikuntzak

Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



Izcue Irurzun

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



ZUTARRI S.L.
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a

379. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Mugarriak ikustera joango dira udalbatzako kideak auzo-alkateekin Otala Zelai egunean

MIRARI ALTUBE

Aspaldiko ohitura da maiatzean Otala Zelai eguna ospatzea, eta aurten, maiatzaren 15ean izango da. Egun horretan udalbatzarreko kideek, auzo-alkateen laguntzarekin, mendi ibilaldia egiten dute Udalaren lurrak ikusi eta mugarrak ondo dauden jakiteko.

Domingo deunaren eguna da maiatzaren 12an, eta honen osteko lehenengo domekan ospatzen zuten lehen Otala Zelai eguna Aozaratzako auzotarrek eta Aretxabaleetako bizilagunek. Halaxe izango da aurten ere.

MUGARRIAK BEGIRATZERA

Mendi ibilaldia egiten du udalbatzarrak Otala Zelai egunean. Udalaren lurrak ikustera eta mugarrak ondo jarrita dauden begiratzera joaten dira. Ingurumen saileko zinegotziak antolatzen du ibilaldia, legegintzaldi honetan Joxe Anjel Antxiak, eta gonbidapena alkate, zinegotzi, Udal idazkari eta auzo-alkateei egin arren guztiak ez dira joaten. Urkulun dagoen iturritik, Matxinurritik, aterako dira eta Arbetik bueltan Hiruatxerantz egingo dute. Udalaren lurrak ikusiko dituzte inguru horretan, eta Urrexolagaraitik Urkulura jaitsiko dira berriro.

Mendi ibilaldia egin ostean, Matikua jatetxean bazkalduko dute ohiturari jarraituz: zizanahaskia, txuleta eta gatzatua.

ZEZEN ONENAK

Otala Zelaiko egunak 140 urte behintzat baditu. Hala adierazten du 1866ko idatzi batek. Haren arabera inguruko zezen onenak aukeratzeko eguna izaten zen maiatzeko domeka. Goroeta, Aozaratz, Larrino eta Bedoña auzokoek zezen bana aurkeztu behar zuten; kalekoek Oro eta Apotzaga-Etxebarrikoekin batera beste bat; Galartza eta Izurietako baserriarren artean beste bat, eta Areantza eta Arkarazokoen artean beste bat. Zezenok, gainera, ezin ziren nolana hikoak izan: bi urtekoak, 6 kuarta eta erdi garaiera-koak eta ondo hazitakoak behar zuten. Eskatutakoa betetzen ez zutenak edo eskasak atzera botatzen zituzten. Onenak, oster, basora bidaltzen zituzten behiekin ibil zitezten.

Auzoen artean egiten zuten elkartze egun hark jai giroko eguna ekarri zuen Aozaratzan dagoen zelaira: bertsolariak, musika, asto-lasterketak... egiten hasi ziren. Bazkaria aldean hartuta joaten ziren familiak bertara orduan, eta halaxe egingo dute askok aurten ere.

*Udalaren lurrak
ikustera eta
mugarriak ondo
dauden begiratzera
joaten dira*



Eguraldia lagun badute mendi ibilaldi dotorea egingo dute udalbatzako kideak eta auzo-alkateek Urkulu urtegiaren gainean.

1933ko Otala Zelai eguna 'Argia'n kontatua

Kepa Antxiak 1900 eta 1936 bitartean argitaratutako Aretxabalearen gaineko artikulua asko ditu. Hala, 1933an Otala Zelaiko eguna kontatu zuen Antontxo izeneko kazetariak Argian.

“Zortzi dira gure erriak inguruan dituen auzoak, eta zortzi oetatik bat, Azatza edo Aozaraza. Auzo onetan eta Otala deritzan baserri ondoan, zelai leun, zabal eta eder bat arkitzen da. Antxiñako oiturari jarraituz, toki onetan egiten da urtero

erromeri handi bat, orrillako 12'garren ondorengo igandean. Ara joaten dira erriko agintariak, eta ara jotzen dute bertako ta inguruko guztiak. Batzuk gatzatu zuri edo ardo beltzak tiratuta; beste asko, an izaten diran dantza eta jolasak deituta; eta geienak udabarriko arratsalde eder bat mendian igarotzeak ematen duan atsegiñaz poztuta. (...) Aurten ez ei da izan Otalazelaian eusko erromeri orri eusko-itxura guztia kentzen zion dantza lotua.”

n
a
r
e
n

FISIOTERAPIA
ZENTROA

1. FISIOTERAPIA
Bizkarrezurreko minak
Traumatologia
Reumatologia
Amasketa sistemako gaitzak
Prebentzio eta kontzientziazio lanak

2. MASAJEAK
Drenaje linfaticoak
Kirol masajeak
Masaje lasaigarriak

3. OSTEOPATIA

4. ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA

FISIOTERAPEUTAK

MIREN MAIZTEGI
NAGORE LLODIO

Ordua hartzeko:

Belorrieta auzoa 5, behea
Tel.: 656 71 56 40
ARETXABALETA

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 7
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 8
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzaila	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteia saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Oralora	943 71 24 06
Panokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postebeta	943 79 28 31
Basabeazpi ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalitzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALITZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIJAK	
SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzailak (Oñati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Ez dago mezarik.

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Oroitzaldia bakarrik)

GELLAO
Ez dago mezarik.

UDALEKU IREKIAK

Udalekuetan izena emateko epea astelehenetik zabalik

M.A.

Uztailean egingo dituzten udaleku irekietarako izenemate epea zabalduko du astelehenean, maiatzak 9, Kultura Sailak. 1991 eta 2001 bitartean jaiotakoek eman dezakete izena.

Udaleko Kultura Sailak antolatzen ditu udaleku irekiak uztailean. 200 bat neska mutiko ibiltzen dira urtero, 30 begirale inguruan dituztela. Aurten uztailearen 4tik 22ra egingo dituzte, hiru aste hain zuzen, eta astelehenetik aurrera izena eman daiteke kultura-etxean.

AURKEZTU BEHARREKOAK

Astelehenean, maiatzak 9 hasi eta 27ra bitartean egongo da zabalik uztailean egingo dituzten udaleku irekietan izena emateko epea. Horretarako kultura-etxera joan behar da 11:00etatik 13:00etara bitartean. Hona izena ematen duten guztiek aurkeztu beharrekoak: izenemate orria beteta eta Euskadiko Kutxan 36,25 euro sartu direla adierazten duen egiaztagiria. Euskadiko Kutxara 10:00ak baino lehen joan behar da honako kontu honetan dirua sartzera: 30350002190020030706.

*11:00etatik
13:00etara bitartean
joan behar da
kultura-etxera izena
ematera*

Lehen aldiz izena ematen dutenek umea agertzen den familia-liburuaren orriaren fotokopia ere eraman behar dute. Izena hiru anai-arrebak emanez gero hirugarrenak ez du ordaindu beharrik izango.

BALDINTZAK ETA ORDUTEGIA

Aurtengo udaleku irekietan 1991 eta 2001 urte bitartean jaiotako aretxabaletar guztiek har dezakete parte. 2001ean jaiotakoak, hau da, 3-4 urte dituztenak, goizez bakarrik joango dira. Ordu-tegia honakoa izango da: 10:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 17:00etara.

Jolastu, eskulanak egin, igerilekura joan, eta beste horrenbeste ekintza egin gura dituenak uztaileko oportetari badaki non eman behar duen izena.



San Fermin eguneko entzierroa ohitura bihurtu da udaleku irekietan.



Barrian egon dira 4 eta 5 urtekoak

Kurtzebarri eskolako Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko neska-mutikoak Barriako aterpetxean, Araban, egon dira astean. Martitzenean joan eta eguaztenean etorri ziren, eta askok lehenengo aldiz pasatu zuten gaua etxetik kanpora. Batzuk oso konbentzituratu joan ez baziren ere, oso gustura ibili dira guztiak. Izan ere, jolasak, eskulan tailerrak eta ekintza asko egin dituzte, eta martitzenean eskasagoa egin arren eguraldia lagun izan zuten kanpoan ibiltzeko. Autobusetik jaitxi orduko hasi ziren guraso eta anai-arrebei kontuak kontatzen. / M.A.

LABUR

'Griot' bidaia liburua aurkeztuko du Jon Arretxe idazleak eguenean, maiatzak 12

Datorren eguenean, maiatzak 12, Jon Arretxe idazle basauriarra hurreratuko da gurera Loramendi Euskara Elkarteak gonbidatuta. *Griot* azken bidaia liburua aurkeztuko du. Afrika Beltzera, Burkina Fasora egindako bidaiaren oinarritutako liburua da, hain zuzen. Lagun baten anaia, bertakoa, izan zuen lagun Burkina Fason, eta bizikleta gainean egin zuen bidaia. Hori eta kontu gehiago kontatuko ditu eguenean, 19:00etan, udaletxe zaharrean.

Maiatzaren 16tik 21era bitartean, bestalde, Euskararen Astea izango da Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta. Orain arte Euskararen Eguna bakarrik ospatu izan du maiatzean, baina aurten aste guztian izango ditugu zer ikusi eta zerekin gozatu.

Otoitz pertsonala lantzeko hirugarren topaketak hasiko dituzte bihar, zapatua

Bihar, maiatzak 7, otoitz pertsonala lantzeko antolatutako hirugarren topaketak hasiko dituzte Aretxabaletan. Zazpi saio egingo dituzte zapatu arratsaldetan, euskaraz guztiak. Elizbarrutiko erlijiosoak zein laikoak etorriko dira ematera, eta hainbat gai landuko dituzte. Aurreko biek izandako arrakasta ikusita antolatu dute hirugarren hau.

Jon Diaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETAK

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.
Zuzendaria:
Lyonel Arquero
Dekorazioa:
Soraya Arquero
ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK
Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETAK

ANDRA MARI
Aholkularitza
- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala
Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETAK
Tel. 943 79 29 26

GARBITU S. KOOP
Garbiketa orokorrak
Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETAK
Tel: 943 79 01 28

ELKARRIZKETA

SANTI MORALES ETA AITOR IRURE/ENTRENATZAILEAK

“Sekula ez ditugu estutu mutikoak irabaz dezaten eta hor egon da gakoa”

M.A.

Aretxabaleta Kirol Elkar-
teko, UDAko, alebinen
futbol taldeko entrena-
tzaileak dira. Denboral-
di bikaina egin du taldeak, eta
Gipuzkoako Txapelketa jokatzen
dabil orain. Maiatzaren 22an dute
azken partidua, etxean.

**Lehenengo aldiz entrenatzen
dituzue alebinak?**

Bai; izan ere, UDAn bi den-
boraldi bakarrik daramatza ale-
binen mailak.

**Samurragoa da gaztetxo-
enei erakustea?**

Bai, 11 urterekin ikasteko izu-
garrizko gogoia izaten dute, eta
nagusitzen doazen heinean galdu
egiten dute ilusio hori. Azpikeria
gehiago ikasten dituzte gero; den-
boraldian bertan ere maltzurra-
goak bihurtzen dira.

**Oso denboraldi ona egin
duzue, non egon da sekretua?**

Oinarri oso ona daukagu eta
daukaten onena ateratzen jakin
dugu entrenatzaileok. Garran-
tzitsuena, baina, taldea bera da,
oso giro ona daukagu eta horrek
asko errazten du lana. Hala, ondo
pasatzen dute, eta ondorioz hobe-
to jokatzen dute futboleant.

**Entrenamendu saioek ere
izango dute zerikusirik, ezta?**

Bai, asko. Min hartuta edo
gaixorik egon ezean beti etortzen



M.A.

dira guztiak, eta gustura etorri
ere. Hori oso garrantzitsua da.

**Eta gurasoak ere gustura
dabilta...**

Bai, orokorrean baietz esan-
go genuke. Guraso talde oso jato-
rra tokatu zaigu, eta horrek asko
egiten du. Gurasoekin arazoak
dituzunean mutikoek ikusi egi-
ten dute, eta zailagoa izaten da
behar bezala lan egitea. Mutiko-
ak gustura badatoz, eta guraso-
ak ere bai, ia guztia dago eginda,
nahikoa da lau gauza erakutsi eta
ondo pasatzea.

**Nola doa Gipuzkoako Txa-
pelketa?**

Oso ondo zihoan domeka arte;
gehiegi barkatu genion Lengo-
koak taldeari eta azken minutue-
tan penaltia sartu ziguten. Hala
ere, zoriendu egin genituen mu-
tikoak, oso ondo jokatu zuten eta.

**Emaitza horrek zaildu
egiten du garaipena?**

Ikusiko dugu. Sekula ez ditugu
estutu irabazteko, eta hortxe egon
da arrakasta. Gainera, ez da gutxi
kirol elkarte txiki bateko taldea
Gipuzkoako onenen artean egotea.

LABUR

**Maiatzaren 15erako, Ojala Zelai egunerako,
antolatu dute herri-krosa Kirol Zerbitzuek**

Maiatzaren 15ean, domeka, egingo dute Ojala Zelaiko krosa. Erro-
meria eguna dela aprobetxatuta zelaian bertan hasi eta bukatuko
dute lasterketa. 10:00etan benjaminak hasiko dira, 10:10ean ale-
binak, 10:20an infantilak eta 10:30ean kadeteak. Juniorrek, senio-
rrek eta beteranok 11:00etan hasiko dute lasterketa, eta buelta
bakarra eman beharko diote Urkuluko urtegiari, 8.410 metro hain
zuzen. Dortsalak 09:30etik 10:30era bitartean banatuko dituzte Ota-
la Zelain bertan, eta sari banaketa 12:00etan egingo dute.

**Aste bukaerako partiduekin bukatuko dute
Deba Arroko Txapelketako lehenengo buelta**

Deba Arroko Pilota Txapelketako lehenengo buelta bukatuko dute
aste bukaeran. Aretxabaletako hiru bikote dabilta jokatzen.
Uriarte eta Oionek galdu egin zuten martitzenean bergararren
aurka, 20-22. Lasagabaster eta Alzolak, ostera, irabazi egin zieten
antzuolarrei, 12-22. Errasti anaiek atsedean hartu zuten.

Gaur, egubakoitza, Elgetan jokatuko dute Errasti anaiek, eta
bihar, zapatua, Elgoibarko bikotearen aurka jokatuko dute Lasa-
gabaster eta Alzolak Iturrigorri frontoian, 19:30ean.

**Sailkapenean hirugarren dagoen Ordizia
hartuko du preferenteko taldeak Ibarra**

Garaipen garrantzitsua lortu zuen joan zen astean UDAko prefe-
renteko taldeak Zumarragan. Hala ere, irabazten jarraitu behar
du atzeko postuak behin betiko uzteko. 15. dago sailkapenean 40
punturakin, eta denboraldia bukatzeko lau partidu besterik ez dira
geratzen. Domekan, maiatzak 8, Ordizia izango du aurrez aurre
Ibarra. Hirugarren dago aipatutako taldea, eta UDak baino 23
puntu gehiago ditu. Hortaz, gogotsu atera beharko dira Aretxa-
baletako jokalariek futbol zelaira ordiziarrei eusteko.

**Bihar, zapatua, hasiko dute Kirol Zerbitzuek
antolatutako bigarren patinaje ikastaroa**

Bigarren patinaje ikastaroa antolatu dute Udaleko Kirol Zerbi-
tzuek aurten. Otsailean egindakoak izan zuen arrakasta ikusi oste-
an jarri dute abian, eta bihar, zapatua, egingo dute lehenengo saioa.
Bi maila daude hastapenekoan, 14 bat lagun egongo dira, eta hobe-
kuntzakoan 11 inguru. Mikel Morrasede emango ditu eskolak.

JAUSQRO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

*Matikua
jatetxea*

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Karlos

Harakina

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

PARTIDUAK

FUTBOLA
UDA-Ordizia
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Zumaiako
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua. 11:00. Ibarra.
UDA/Arizm.-Ilintxa
Lehen mailako gazteak.
Zapatua. 16:30. Ibarra.

PILOTA
Aretxab.-Elgoibar
Zapatua. 19:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA
Urola 1 UDA 5
Preferentea.
UDA 1 Antiguoko 1
Ohorezko gazteak.
Aurrera 5 UDA/Arizm. 2
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 2 Real Union 0
Infantil ohorezko mailak.
UDA/Arizm. 1 Elgoibar 2
Infantil txiki.
Lengokoak 5 UDA 4
Alebinak.

Almen/UDA 2 Intxaurdi 3
Emakumezkoen liga (igoera).

PILOTA
Deba Arroko Pilota Txapelketa
Aretxab. 20-Bergara 22
Antzuola 12-Aretxab. 22
Errasti anaiek-atsedena

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

*Hirusta
jatetxea*

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

ATREBENTZIAEZPADA/ Langille asko hiltten die lan istripuetan. Zeinen ardurie da eta ze egin leike?




JUANA MARIA MARTINEZ
Langillie



ZIGOR MONEO
Langillie



ELENA AXPE
Langillie



SANTI FERNANDEZ
Langillie



TERESA ORDOKI
Jubilaue



JOSE MARI ANTON
Jubilaue

Neuk uste langillien ardurie dala hein haundi baten. Lan egitteko orduen berak hartu biher dittu segurtasun neurriek eta kontu haundixauaz egin biherko leike lan.

Patronalana, Eusko Jaurlaritzak dauken sailena eta batzuetan langilliena be bai. Askotan estutu egiten dittue, eraikuntzan batez be, eta biher dan moduen gertatute be ez die egoten.

Ez dakit, langillioek eragindekuek be izeten die batzuetan. Gauza asko alkarketan diela uste dot informaziño faltie, prixe-ka lan egittie, eta gero istripuek egoten die.

Enpresarixuek beste batzuen eskuetan ixten daue segurtasune diru apur bat aurreraketako. Informaziño faltie egoten da batzuetan, eta estu eta larri lan egittiek be eragiten dittu.

Neure ustien enpresari- xuek die ardura haundixena daukienak. Seguridadeko neurri gehixau hartu biherko leukie, eta langilliek hainbeste ez littuzke- te estutu biherko.

Nagusixek asko estuketan dittu langilliek, aguro egin biher izeten daue lana, eta asko, gaiñera. Prixe-ka lan egittiek istripuek sortzen dittu, hortaz, soseguzau eta seguruau egin biher da lan.

TXALOAKETATXISTUAK




TXISTUAK AUTOAK ESPALOI GAINEAN Aste bukaeretan udaltzainek lanik egiten ez dutela aprobetxatuta edozein lekutan uzten dute automobila askok: Goiaran taberna parean izugarritzko ilara, espaloi gainetan... Traba egiteaz gain arriskua sortzen dutela guztiok jakin beharko genuke, nahiz eta udaltzainek lanik egin ez. Edo isunekin bakarrik errespetatzen ditugu arauak? / M.A.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

'Zigor' eskultoreak erakusketa egin zuen

Miarritzen bizi den Kepa Akixo Zigor eskultore aretxabaletarrak erakusketa jarri zuen udaletxean. Loturekin zerikusia zuten hainbat eskultura ekarri zituen, egurrezkoak guztiak, eta hamabost egunean egon ziren ikusgai. Zigorren esanetan plazer handiarekin egindako erakusketa izan zen.



ASTEKODATUA

36,25

EURO UDALEKU IREKIETAN PARTE HARTZEKO

Astelehenean zabalduko du Kultura Sailak udaleku irekietan izena emateko epea. 36,25 euro ordaindu beharko ditu ume bakoitzak. Hiru anai-arreba joanez gero hirugarrenak doan izango du.


BESTEKEESANA

“ Normalean barbari zure inguruan ematen zaion erabilera ezagutzen duzu bakarrik eta, lan honi esker, beste erabilera asko ezagutu ditut. Desmitifikatzeko balio izan dit; esan nahi dut, batzutan hark edo besteak erabili izanagatik “gaizki” dagoela esan izan dugu eta ez dauka horrela izan beharrik; adibidez, maite berbarekin esaten da “oso maite zaitut” esan behar dela, baina testuek erakusten dute “asko maite zaitut” gehiago esan izan dela. Horrelako gauza asko desmitifikatzeko balio du hiztegi honek.

Aretxabaletako berba asko jaso ditugu. Gainera, Juan Martin Elexpururen hiztegia kontsultatu izan dugu. Debagoieneko berba asko daude eta hiztegi gileen artean ere agertzen da Debagoiena.

ANE LOIDI
'Asteleheneko Goienkaria'/05-05-02

HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



V-1

Lanean hiltzea tristea dela esan zidan lagun batek orain gutxi. Nik baina, lanean gustura ibiliz gero behintzat, ez duela zertan tristea izan erantzun nion. Pasatu litekeena bai; lan istripuak sarri gertatu izan dira eta.

Astakeria da entzutea, egunean 6.000 langile lan istripuen edo lanbidearekin zerikusia duten gaixotasunen ondorioz hiltzen direla munduan. Maiatzaren lehena- ren inguruan horixe salatzen da. Dena den, egunei etiketa jartzearen aldekoa ez naiz, horrek urteko gainontzeko egunetan ahaztea dakar askotan. Ona ondo dagoela esaten erraza den moduan, oker dagoena ere erraztasun berarekin salatzen saiatu behar dugu. Lehenbailehen. Gero kaletik Sekula plazara iristen da eta. Badakit ez dela inoren gustukoa jaten ematen dion eskuari kosk egitea; jakinda, gainera, hogeita hamaika eskutik nor

dagoen; baina norberaren osasuna jokoan dagoenean ez dago beste aukerarik. Prebentzioa ezinbestekoa da.

Lagun txarrak dira, duda barik, lanpostuetako segurtasun eza, esplotazioa, bazterketa, prekaritate tasa altua edota sustantzia arriskutsuekin

“Astakeria da egunean 6.000 langile lan istripuen edo lanbidearekin zerikusia duten gaixotasunen ondorioz hiltzea”

jardutea. Eta zer esanik ez darabilgun produkzio erritmo ikaragarria. Nagusi- langile hierarkia leuntzea komeni da. Batak besteari begiratzen badio ere, galtzeko gehien duena langilea da. Batez ere diruak itsututako zenbait

nagusi arduragabeen aurrean. Ados egongo gara gaztetan osasuna galtzen dugula dirua egitearren badiot, eta zahartzaroan dirua galtzen dela osasuna berreskuratzeko, gaineratzen badut. Zahartzarora iristea ere ez dela gutxi pentsatu beharko dugu. Ondo eta sano iristea besterik ez zaigu falta. Argiñanok dioen bezala “al trabajo, con alegría”. Eta argi. Poztasunak biher ere jarrai dezala.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Karme Etxabe

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale



ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / 207. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Oñalora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarrri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Erretiratuendako hiru ortu libre daude Torrebasen

IKER BARANDIARAN

Udalak aditzera eman du erretiratuendako hiru ortu libre daudela oraindik. Torrebasoko mendixkan daude ortuak, Almenen alboan. Martxoaren bukaeran urtebete egin zuten, eta oso harrera ona izan dute. Udalak hobekuntzak egingo ditu datozen egunetan.

2004ko martxoan jarri zituzten abian Torrebasoko muinoko ortuak. Udalarena da lurzorua eta aspalditik aurreikusitako ekimena egitea lortu zuten. Ezagun da herriko erretiratuek -beste herri askotakoek moduan- ortuan ibiltzea oso gustuko dutela. Erretiratuak zaletasun horretaz goza zezaten erraztasunak emateko eta udalerriko ortuak zelanbait ordenean jartzeko, lurzoru hori partzelatan banatu zuten. Hogeita bat egin zituzten.

Ortuen alboan, haiek ustiatzen dituztenek erabil dezaketen txabola eraiki zuten. Eta txabolaren barruan, aldatzeko eta gauzak gordetzeko armairu bana dute. Horrez gain, guztiak erabiltzeko moduko ur putzua dute, eta ortuen artean bideak eginda daude. Udaleko zinegotzi Juan Luis Merinok azaldutakoaren arabera, joan den urtean ur faltan ibili ziren, baina aurten ur-hartunea egin dute, hori saihesteko.

HOBKUNTZAK EGIN BEHAR DITUZTE

Juan Luis Merinok azaldutakoaren arabera, Udalak laster hobekuntzak egingo ditu. "Dagoeneko



JUAN LUIS MERINO

Orain dela urtebete ortuak hartu zituzten lagun guztiak akordioa berritu dute.

onartuta dago lehenengo partzela dagoen lekuan bi mahai handi jartzea, eta horietako bat markesina batekin estaltzea. Horrela, erretiratuek atsedean hartzeko lekua izango dute, eta eguzkitan edo itzaletan egon ahal izango

dira. Gure asmoa da hemendik bi astera mahaiak eta markesina jarrita egotea".

ORTUAREN ERABILERA, DOAN

Orain dela gutxi ortu horiek erabiltzen dituzten erretiratuek beste urtebeterako berritu zuten Udalarekin duten hitzarmena.

Udalak aditzera eman du oraindik hiru ortu libre daudela. "Interesatuak Udalera jotzea besterik ez dute. Eskatu ahala adjudikatuko ditugu". Merinok azpimarratu zuen erabiltzaileek ez dutela ezer ordaindu behar. "Norberak haziak, aitzurra eta urrez-tontzia ekarri beharko ditu".

Erretiratuek ez dute ezer ordaindu behar. Udalak partzelak, ur-putzuak eta aldatzeko armairuak ipini ditu

Hezkuntza bermatzeko ekimen sinbolikoa, eskolan

I.B.

Alboan gobernu kanpoko erakundeak *Hezkuntza guztiontzat* kanpaina abiarazi du Euskal Herriko 40 bat eskolatan. Horien artean, Eskoriatzako Luis Ezeizan.

Joan den egubakoitzean egin zuten ekimena. *Hezkuntza guztiontzat* kanpainaren bitartez bermatu gura dute munduko ume guztiak hezkuntza jasotzea. Munduko agintariak horren aldeko agiri bat sinatu zuten, baina ez dute horren aldeko pausorik eman. Horregatik, Alboanek eta gobernu kanpoko beste erakunde batzuek umeak eta politi-

kariak kontzientziazteko kanpaina abiarazi dute.

Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolara PP alderdiko Juana Bengoetxea politikaria gonbidatu zuten. Ordurako, Lehen Hezkuntzakoek eskolan Hirugarren Munduaren egoera aztertu zuten.

Hortaz, ikasleek garatu bari-ko herrialdeetan neska-mutilek eskolara joateko dituzten zailtasunak zenbatu eta Bengoetxeari aditzera eman zizkioten. Luis Ezeizako umeek munduaren marrazki bat egin zuten. Gai-idea, herri garatuak irudikatuz, hori kolorez margotu zuten; eta gainontzekoa, morez. Politikari-eri desberdintasun hori ezabatzeko eskatu zieten.



AMAGOA LASAGABATER

Ekimen honen bitartez, umeak eta politikariak kontzientziaztea gura dute.

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



MIRENTXU
TABERNA
Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ALDAYE ELKARTEKO BATZAR OROKORRA

Bihar, zapatua, Aldaye elkarte gastronomikoak batzar orokorra egingo du kultura-etxean, 16:30ean. Bazkide guztiei deialdia egin gura diete.

BIHAR, ZAPATUA, SASKIBALOI NORGEHIAGOKAK

Bihar, zapatua, saskibaloitaldean hiru norgehiagoka izango dira kiroldegian: 16:00etan, junior taldeak Salletarren kontra jokatuko du; ordu berean, kadeteak B.K.L. CAFen kontra lehiatuko dira; eta 18:00etan, senior taldea La Salleren kontra lehiatuko da.

PATINAJE IKASTAROA ANTOLATU DUTE

Aurten ere patinaje ikastaroa egingo dute pilotalekuan. Bihar, zapatua, izango da izena emateko azkeneko eguna. Maiatzaren 15ean, 22an eta 29an, eta ekainaren 5ean eta 12an egingo dute. Hastapen mailakoak, 10:30etik 12:00etara; eta sakontze mailakoak, 12:00etatik 13:30era. Kiroldegiko bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkide ez direnek, berriz, 13 euro.

AXTROKIREN AGENDA

'ASTELEHENEN GOIENKARIA'-KO HARPIDETZAN BEHERAPENA

Axtrokiko bazkideek 5,50 euroko beherapena izango dute *Astehenekoen Goiienkaria*-ko harpidetzan. Deitu honako telefono zenbakira: 943 76 92 70.

SAN PEDRO JAIETARAKO PRESTAKUNTZAK

San Pedro jaiak iragartzeko horma-irudi lehiaketa deitu dute

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko Udaleko Kultura Saila eta herriko hainbat elkarte badabiltza San Pedro jaiak antolatzen. Otsailean hasi ziren, eta hilabeteko bigarren eguazteneko elkartzen dira kultura-etxean. Hitzordua 18:00etan egingo dute, eta aditzera eman dute batzar irekiak direla. Hortaz, interesa duenak hara jo dezake. Hurrengo batzarra maiatzaren 11n egingo dute.

Bestalde, Udaleko Kultura Sailak abian jarri du San Pedro jaiak iragartzeko horma-irudi lehiaketa. Edozein lagunek esku hartu ahal izango du, inolako muga barik. Horma-irudiak 21 x 10 zentimetro izan beharko ditu. Hortaz, aurkeztutako lanak neurri horiek izan beharko ditu.

Teknika libre izango da, eta lanek derrigorrez honako testua izan beharko dute: *2005eko San Pedro Jaiak. Eskoriatza. Ekainak 28, 29 eta 30, Uztailak 1.*

Irabazleak 300 euroko saria jasoko du, eta Udalak egoki ikusten badu, aurkeztutako lan guztiek irakusketa egingo du.



San Pedro jaietan adin guztietakoendako ekintzak izango dira.

Lanak udaletxera edo kultura-etxera eraman beharko dituzte 2005eko maiatzaren 20ko 14:00ak baino lehen. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izan-

go da, eta lehenbailehen emango dute aditzera.

Saritzen duten lana Udalaren esku geldituko da, eta hark izango du kaleratzeko eskubidea.

Eguraldiak lagunduta, egun-pasa ederra egin zuten Aitzorrotzen

IKER BARANDIARAN

Zubia dela-eta, hainbat lagunek kanpora jo zuten asteburuan. Arrazoi horregatik, joan den urtean baino lagun gutxiago izan ziren aurtengoan. Hala ere, ehunka eskoriatzarrek egin zioten kasu urteroko hitzorduari eta Aitzorrotzera igo ziren. Are gehiago, eguraldia lagun izan zuten, eta egunaz gozatzeko aukera, beraz.

Arrasateko parroko Genaro Lekuonak eman zuen meza 11:30ean, eta Xapre eta Zaharra trikitilariak alaitu zuten eguna. Herri-bazkaririk egin ez zuten arren, hainbat lagunek Aitzorrotzen bertan egin zuten jatordua, etxetik janaria eramanda edo tabernan eskuratuta. Egun zoragarriaz gozatu ostean, arratsaldean Herriko Plazara jaitsi ziren gehientsuenak, eta han jaiak iluntzera arte jarraitu zuten.

OHIKOA BAINO JAI LUZEAGOA

Ohikoa den moduan, herritarrek etxean egindako tortillak salgai jarri zituzten, eta ez zen inor gose gelditu. Horrez gain, Kaixo taldeak alaituta dantzaldia egin zuten plazan. Berandura arte gelditu zirenek kontatu digute, biha-



Trikitilarien musikarekin hasi eta iluntzeko dantzaldiarekin bukatu zen eguna.

ramuna jai izanda eta eguraldiak lagunduta, Aitzorrotz eguna edo gaua dezente luzatu zela.

OHIKOA BAINO JAI LUZEAGOA

Urtero, egun horretan, guraso taldeak eta Atxorrotz gobernuz

kanpoko erakundeak egingo dute lan. Horregatik, tortillekin batutako dirua herriko elbarrituei laguntzeko, eta Atxorrotz elkar-teak Montevideon eta Boli Kostan dituen proiektuetarako bideratuko dute.

LABUR

Anai-arreben arteko inbidien gaineko berbaldiak

Eskoriatzako guraso eskolak, sarritan egin ohi duen moduan, hainbat berbaldi-tailer antolatu ditu datozen eguinetarako. Eguaztenean, hilaren 11n, eta eguenean, hilaren 12an, *Anai-arreben arteko harremanak: inbidiak, zeloak...* leloa duten jardunaldiak egingo dituzte kultura-etxean. Bi egunetan 18:00etan hasiko dituzte berbaldiak.

Urtxintxako Aitziber Goitia psikologoak gidatuko ditu tailer horiek eta, batez ere, gurasoei zuzenduta daude. Hala ere, aditzera eman digute beste edozein herritarrek ere jo dezakeela hara. Ordu eta erdi inguruko iraupena izango dute, eta Aitziber Goitia entzuleen parte-hartzea bermatzen saiatuko da, tailerra dinamikoagoa izan dadin.

Honako gaiak landuko dituzte: jelskortasuna eta inbidiak; gurasoen eta umeen jarrerak eta portaerak; eta zeloak sor ditzaketen egoerak, besteak beste. Horrez gain, material didaktikoa eta gaiaren gaineko bibliografia banatuko dute.

KZgunean hainbat ikastaro egingo dituzte maiatzean

Ohikoa den moduan, Eskoriatzako KZgunean hainbat ikastaro antolatu dituzte maiatzerako. Aditzera eman digutenez, hilabete honetako ikastaro guzti horiek euskaraz egingo dituzte.

Maiatzerako iragarri dituzten gain, joan den egubakoitzean, apirilaren 29an, *Zure etxebizitza aurkitu* izeneko ikastaroa egin zuten.

Gaur, egubakoitza, *Ardoa ezagutu* leloa duen ikastaroa egingo dute. 09:00etatik 11:00etara izan da hori.

Datozen egubakoitzetarako honako ikastaro hauek iragarri dituzte: maiatzaren 13an, Flashgeta erabiltzen ikasiko dute, 09:00etatik 11:00etara; maiatzaren 20an, Outlook express-aren gaineko azalpenak jasoko dituzte, 11:00etatik 13:00etara; eta hilaren 27an, bakoitzak bere aseguru kontratatzen irakatsiko diete, 09:00etatik 11:00etara. Oraindik badago aukera ikastaro horietan izena emateko. Interesatuek jo dezatela KZgunea lehenbailehen.

Horrez gain, KZgunea hasi da ekainerako beste ikastaro batzuk antolatzen. Are gehiago, erabiltzaileen proposamenen zain daude. Hortaz, hor daukazue gomendioak emateko aukera.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko maiatzaren 6a / 149. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS1084/02

India eta Venezuela aztergai dira eskolan eta kultura-etxean

UBANE MADERA


India eta Venezuelako egoera aztertuko dute, besteak beste, San Martin Eskolakoek datorren astean. Gobernuz kanpoko Harreman elkarteak lagunduta egingo dituzte ekimenak.

Maiatzaren 13an, datorren barikuan, egingo dituzte ekimen gehienak. Batetik, Venezuelako Maria Finol misiolaria etorriko zaie ikasleei. Biologoa da misiolari hau eta Venezuelaren gainean berba egingo die.

Horrez gainera, Harreman elkartearen eskutik, Indiako neskatilatxoek bizi duten egoera latza ezagutuko dute egun berean. Batetik, bideo bat ipiniko diete. Bestetik, panel informatiboak ipiniko dizkiete.

HITZALDIA KULTURA-ETXEAN

Azkenik, eta kasu honetan interesa duen edozeinendako, hitzaldia egingo dute arratsaldean. *Pobretuta dauden herrialde aberatsak* izenburua ipini diote. Venezuelaren eta antzerakoien kasua aztertuko dute, Maria Finol misiolariaren eskutik. 18:00etan hasiko da hitzaldia, kultura-etxean.



Indiako leku askotan zelan bizi diren erakusten digu argazkiak.

DIRUA, INDIARA

Eskolan urtero egiten dituzte gobernuz kanpoko erakunderen batekin halako ekimenak. Hala, munduko behartsuenen egoeraren berri izateaz gainera, euren laguntzatxoa bideratzen dute.

Hain zuzen ere, aurten, Erretiratu-egunean tartak saltzen batu zuten dirua Indiara bidaliko dute, Harremanen bitartez. Erakunde horrek Ankur izeneko proiektuan lan egiten du. Baztertuta bizi diren neska umezurtzei lagun-

Indian sinesten dute Ihesa duen gizon bat birjina batekin oheratuz gero osatu egiten dela

tzeko zentroa da Ankur. Izan ere, Indian, emakumeak eta bereziki neskatilatxoak dira bazterketa gehien jasaten dutenak.

INDIAKO NESKATILATXOEN DATU LATZAK

Zenbait datu ematearren, estatistikaren arabera, 16 urtetik beherako neska bat bortxatzen dute 155 minutu. 13 urtetik beherako neskatilata batek sexu-abusuren bat jasaten du 13 ordu. 400.000 prostituta 14 urtetik beherako neskatilak dira. Haien artean %52a Ihesarekin kutsatuta zeuden 1994an, eta oro har, han duten sineskera da Ihesa duen gizona eta birjina batekin oheratzen bada osatu egiten dela.

Ankurren halako neskatilatxoak hartzen dituzte, eta han dauden mojek zaindu eta hezi egiten dituzte, besteak beste.



San Prudentzio gogoan eskolan

Joan den eguaztenean, San Prudentzio egunaren bezpera zela-eta, Aramaioko gatzetxoek zaindaria omentzeko danborrada egin zuten. Eskolako zuzendari Paulino Ibabek kontatu digunez, txikienek zein nagusienek, guztiek ikasi zuten Prudentzio Deunaren omenezko kantua. Goizean abestu zuten, eskolako patioan, eskolan bertan egindako danborrekin eta txapel dotoreekin.

Gero, aramaiotar gehienek moduan, bost eguneko zubia izan zuten. /U.M.

LABUR

Lau t'erdiko txapelketako partiduak, gaur

Gaur, barikua, lau pilota partidu jokatuko dituzte Lau t'erdiko txapelketaren barruan. 21:00etan hasiko dira. Honako bikoteek jokatuko dute: Moran (Lizarra), Aranbururen (Billabona) kontra; Esnola (Beasain), Unai Arrastoren (Irurita) kontra; Irurita (Burlata) Gomezen (Lapuebla de Labarca) kontra eta Lasa (Urretxu), Gandiagaren (Lekeitio) kontra. Jakinarazi digutenez, aurrera begira beste hiru bat pilota jaialdi izango dira Aramaion.

23 urtetik beherako (23 urte barne) pilotariak parte hartzen dabilta txapelketan.

KZGunearen datorren hileko ikastaroak

KZGuneako arduradunak jakinarazi digunez, maiatzaren 16an, Etxetik eros ezazu ikastaroa egingo dute, 09:00etatik 11:00etara. Erosketak internet bidez zelan egin azalduko dute. Besteak beste, Eroskik Interneten duen saltokian sartu eta adibide praktikoak ikusiko dituzte. Eta maiatzaren 30ean, Euskara ziberespazioan ikastaroa egingo dute, 11:00etatik 13:00etara. Euskarak Interneten duen pisua ikustea da ikastaroaren xedea.

Uztaileko udalekuetarako izenematea

Bi aste barru, maiatzaren 20an bukatzen da uztaileko udalekuetarako izena emateko epea, umeendakoa zein begiralendakoa. Umeen kasuan, bakoitzak 36 euro ordaindu beharko ditu. Begiraleen kasuan, berriz, besteak beste, 17 urtetik gorakoak izan beharko dute deialdira aurkezteko.

Udalaren udalekuak uztailearen 6tik 19ra bitartean dira.

ETXAGUENGO ZENTRO METEOROLOGIKO TXIKIA

Meteorologiaren gaineko datuak batzen dituzte egunero Etxaguenen

UBANE MADERA

Askotan jakinarazten dizkigute meteorologiarekin lotutako datuak: bota duen euri kopurua, hezetasun maila, hotz-beroa... Puntu estrategikoetan ipintzen dituzten aparatuen bitartez lortzen dituzte halako datuak. Horietako batzuk Aramaion bertan daude, Etxaguenen.

Uribarren baserriaren atzeko aldean daude aparatuek eta Maria Jesus Aspe ibiltzen da haiek maneiatzen.

Aspaldi ipini zituzten aurreneko aparatuek Etxaguen auzoan: "Diputazioak egin zuen hitzarmen bat Arabako puntu estrategikoetan ipintzeko; hango ingeniari bat etorri zen, Juan Mari (nire senarra) ezagutzen zuen hark eta Juan Marirekin egin zuen tratua". Hala kontatu digu Maria Jesusek. Halaber, esan digu hasiera hartan (orain dela 29 urte) eskuz erabili beharreko aparatua ipini ziola Arabako Diputazioak; eta orain dela 15 urte-edo, ordenagailuz konektatutako ekipo automatikoa, haizea eta bestelakoak neurtzeko. Hori geroago kendu egin zioten. Eta orain dela hiru urte, berriz, beste aparatua automatikoa bat ipini ziotela esan digu, eguzki plakarekin; Estatuko gobernuak Donostian duen ordezkartza meteorologikoa ipini zion azken aparatua hori.

ZENTRO METEOROLOGIKOETARA

Oro har, orain Etxaguenen zera neurtzen dute: euria, hezetasun maila eta hotz-beroa. Batutako datuak Donostiara bidaltzen ditu Maria Jesusek eta handik Madrilerara bidaltzen dituzte. Hala, Madrildik, Estatuko zentro meteorologiko inportanteenetara banatzen dituzte datuak, konparazioak eta bestelako lanak egiteko. Horrekin batera, Arabako Diputazioa ere bidaltzen ditu datuak.

Eta horrez guztiaz gainera, Maria Jesusek irratiaren ematen du informazioa egunero: "Hiru bat urte dela hasi ziren. Diputazioak etorri zitzaizkidan esaten Radio Vitoriak gura zuela zazpi lekutako datuak kontatzea. 10:00etako notizien atzetik egiten dugu".

EGUNEROKO ARDURA

Ez da lan makala Maria Jesus Aspek egiten duena, kontuan hartuta egunero-egunero egin beharrekoa dela: "goizetan ikusi behar dut zein temperatura dagoen eta termometroak ipintzen ditut zeron. Hori Diputazioaren aparatuekin. Eta Donostiako ordezkariarendako, hilero jasotzen ditut ordenagailuak batutako datuak eta txip batera pasatzen



Uribarren baserriaren ondoan ibiltzen da Maria Jesus Aspe aparatuetako datuak hartzen, egunero-egunero.

*"Oraintxe lau urte-
edo, zaparrada
batean 42 bat litro
bota zituen oso
denbora gutxian"*

ditut. Ezin dezaket sekula ahaztu. Eta neu noizbait etxean ez banago, norbait utzi behar dut kargura".

Gure eguraldiaren nondik norakoak zaintzeaz gain, Uribarren baserriaren egiten duten lana beste gauza batzuetarako ere bada erabilgarria: "Datu denak gelditzen dira artxibatuta, eta erabiltzen dituzte, esaterako, elurte bat izan eta istripu bat gertatu denean, edo euri-zaparrada handiekin harriak errepidera jausten direnean... aseguru kontuetaarako eta erabiltzen dituzte guk batutako datuak".

DATU BITXI BATZUK

Eguraldiaren nondik norakoei begiratuz gero, berriz, Maria Jesusi galdetu diogu ea akordatzen den atentzioa eman izan dion daturen batekin; hark iazko udazkena ekarri digu gogora, oso euritsua izan zelako. Baita beste urte batzuk ere: "oraintxe lau urte-edo zaparrada batean 42

*"Aurtengo negua
gogorra izan da,
egunez zerotik behera
lau edo hiru gradu
izan ditugulako"*

bat litro bota zituen, oso denbora gutxian".

Temperaturetan ere izan dituzte halako datu deigarriak: "11 zero azpitik egon izan dira, Errege Egun batean, 70eko hamarkadan. Ateen bisagrak izotz zuriarekin agertu ziren... Aurten bederatzi zero azpitik izan ditugu. Baina aurtengo negua gogorra izan da egunez zerotik behera lau edo hiru gradu izan ditugulako, eguerdiko hamabietan. Eta eguzkia egon, eta hala ere, lau gradu zerotik behera. Nik halakorik 29 urte honetan ez dut eza gutu. Zerotik behera bat edo bi bai, baina lau gradu zero azpitik eguerdiko hamabietan, eta hortik ez igo zitea..." Temperatura beroei dagokienez, berriz, Maria Jesusi ez zaizkio horren deigarriak iruditzen: "Ni akordatzen naiz 38 graduekin, hori baino gehiagorekin ez naiz akordatzen".

NEGUTEGI EFEKTUA DELA-ETA

Eguraldiaren bueltan 29 urtean lan egin duela kontuan hartuta,

*"Lanbroa, lainopea
eta zirimiria egiten
ditu... Ez dut
uste eguraldia
aldatu denik"*

geroago eta sarriago entzuten dugun negutegi efekturik igarri duen ere galdetu diogu Uribarren bizilagunari, ea egia den negutik bat batean udara pasatzen hasi garela: "Nik ez dut halakorik igarri. Aurten, behintzat, martia udaberri modukoa egin du.

Begira, lanbroa beti egiten du, lainopea ere bada, eta zirimiria ere egiten du... Ez dut uste aldatu denik. Urte batzuetan elur gutxi egiten du baina begira, esaterako, aurten zelako negua izan dugun. Iaz, berriz, ez zuen egin horrenbeste hotzik, baina, elur-maila altuagoa izan zen, 80 zentimetro izan genituen hemen. Eta gorago, metro bateraino iritsi zen".

Bukatzeke, eguraldia pronostikatzeke gauza den galdetu diogu eta esan digu beti ematen zaiola antz apur bat, goizean dauden laino klaseen arabera, Santikurtzera begiratuta, hegoarendako; eta Ipiztera begiratuta, iparrerako. "Esaterako, goizeko laino gorri, ilunkerako euri".

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 00
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiko Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunak zuzendutakoak da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

BARIKUKO ZINEMA

Nick Cassavetes zuzendariaren *El Diario de Noa* drama erromantikoa emango dute. Besteak beste, Ryan Gosling, Rachel McAdams eta James Garner aktoreek parte hartzen dute. 124 minutu irauten ditu. Bigarren Mundu Gerra erdian dela, bikote baten nondik norakoak kontatzen ditu. 22:30ean hasiko da eta betiko moduan, euro bat ordaindu beharko da.

UMEENDAKO ZINEMA

Disney faktoriaren beste film bat emango dute domekan: *102 Dálmatas*. Cruella de Vil, zakurren eta haien lagunen abentura da. 2000ko filma da eta 100 minutu irauten ditu. 17:00etan hasiko da zinema saioa.

ERRENTA AITORPENA

Joan den martitzenean, hilak 3, zabaldu zuten Araban aurtengo errenta aitortpena egiteko epea. Besteak beste, errenta aitortpena internetez egiteko aukera ematen du Diputazioak, www.alava.net helbidean.

Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / 5. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Oñalora Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurtzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

JAIK/ Eguaztenean egin zuten batzarra Udaleko ordezkariak eta hainbat gatzagarrek, eta dagoeneko hartu dituzte lehenengo erabakiak

Herriko jaietan zer antolatu, horixe hainbat gatzagarren buruhaustea

XABIER URTZELAI

Dorletako Andra Mari egunerako askotxo geratzen bada ere (irailak 8), Leintz Gatzagako Udalak eguaztenean egin zuen herritarrekin lehen batzarra, jaietan zer antolatu erabakitzeko. Horrelako herri txiki batek dituen muga ekonomikoek guztia baldintzatzen dute.

Hamabi mila euroko aurrekontuarekin ezin da herri handietan egiten dituzten jaietako egitaraua antolatu. Horregatik, poltsikoak jarri ezin duena burua ahalik eta gehien eraginda lortu behar da. Eguaztenean udal txean elkartu ziren lagunek argi daukate diruak beti laguntzen duen arren, herritarren parte-hartzeak egiten dituela jaiak arrakastatsu.

Horrekin batera, jaiak zein helbururekin antolatu behar dituzten ere aztertu zuten batzarrean. Orain arte jaietan kanpotarrak Gatzagara erakartzen ahalagindu dira. Baina gaur egun, eta gauze batez ere, gaitza izaten da ibarreko gainontzeko lekuetatik jendea Gatzagara joatea. Hala, erabaki duten gauzetako bat izan da gatzagarrei zuzendutako jaiak egitea, eta ez dute jendea kanpotik etor dadin aparteko ezer egin-



Joxerrak eta Jonek herritarren eskakizunak jaso zituzten eguaztenean, eta egin dute jaietako lehen zirriborroa.

go. Hori bai, guztiak izango dira ongi-etorriak.

LASTERKETA, ETA ROCK KONTZERTUA

Leintz Gatzagako txirrindulari lasterketa izango da, seguru asko, urteak joan eta urteak etorri, jai egitarauan kale egin ez duen hitzorduetako bat. Aurten ere egingo dute, egubakoitzean, irai-

Herriarrek hainbat proposamen egin zituzten, baina aurrekontu txikia dute

lak 9. Lasterketa goiz partean egingo dute, eta gaua gazteendako izango da. Akaso, egubakoitz gaua izango da ibarreko gainontzeko herrietatik jende gehien joango den eguna. Gazteek ez dute hara eta hona ibiltzeko horrenbeste arazo izaten, are eta gutxiago entzun eta ikusiko duten kontzertuak merezi badu. Alde horre-

tatik, batzarrean izan ziren gazteek inguruko hainbat talderen izenak bota zituzten. Udaleko ordezkari Jon Sasiainek eta Joxerra Perezek ez zuten trabarik jarri. Besteak beste, gau horretako kontzertuek jaietako bizitasuna ematen dietelako, eta talde horiek ekartzeko ez delako aparteko aurrekonturik behar.

OSOKO BILKURAN, ORDEZKARI GUZTIAK

Joan den astean egin zuen Leintz Gatzagako Udalak osoko bilkura, eta aspaldiko partez, kide guztiak izan ziren mahaiaren bueltan, Polonian bizi den Eugenio Otsa herrian zegoelako. Azpimarragarriena da Arlaban gaina erregulatuzko plana onartu zutela. Eta bertako lur eremu bat nekazaritza industriarako aurreikusitako dute. Horrekin batera, urbanizazioaren proiektu orokorra ere onartzeko bidean dago, baina burokrasia kontuengatik astebe- tez atzeratu behar izan dute, dokumentu batzuen zain daudelako.

Azkenik, datorren maiatzaren 11n, eguaztana, egingo dute Gatzagan Agenda 21en gaineko foroa. Egitasmo horrek garapen iraunkorra, ingurumena, herrialde txiroen egoera eta beste hainbat gai batzen ditu. Gatzagan eman daitezkeen pausoen gainean egingo dute berba.

Hemezortzi 'sorgin' abiatu dira gaur Zamorara, asteburua igarotzera

X.U.

Sorginak Emakume Taldekoak gaur abiatu dira Zamora aldera, 16:00etan zuten hitzordua. Ia lau ordu beharko dituzte Leintz Gatzaga eta Zamora banatzen dituzten 354 kilometroak egiteko.

Leintz Gatzaga, neurri handi baten, emakume barik geratu da, Sorginak taldeko 18 lagun asteburu-pasa joan dira-eta Zamora-

ra. Gainera, ez pentsa bidaia behar baino gehiago prestatu dutenik, gaurko gaua non igaroko duten da-eta dakiten gaua bakarra. Ilunkaran iritsiko dira Zamorara, eta gaur ez dute askorako astirik izango. Bihar, berriz, gida batek lagunduta hiria ezagutu ahal izango dute, baita inguruko herriak ere. Amaia Olabek esan digu bidaian joan direnek, besteak beste, Morales de Toro herria bisitatu eta hango upeltegiak bertatik bertara ikusi gura

dituztela. Hori bai, zapatuko gaua non igaroko duten galdetuz gero, horrek ez dauka erantzunik; deskuidatuz gero, parrandan.

GUREL-EKOEN IRTEERAK

Gatzagako gurasoen elkarteko kideek martitzenean egin zuten batzarra, eta guztia zehaztu barik badaukate ere, dagoeneko prestatu dute udaberriaren egingo dituzten irteeren zirriborroa.

Besteak beste, Bermeora joateko asmoa dute.



Bistan da Sorginak taldeko emakumeak ez direla Zamoran galduko.

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE
AROSZTEGIA**
Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



DEBARRI: ARETXABAETA

Arritxu Oliden,
Aretxabaletako alkatearekin berbetan

Martitzenean, maiatzaren 10ean,
20:30ean eta 22:30ean

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea

Parte hartzeko:
943 71 23 93 edo
www.goiena.net/aretxabaleta/eztabaidak

Goitb
Goiena Telebista

Ikustekoa!

DEBARRI / Babeslea:

**GRUPO
RK
UZ**
ARRASATE-ARETXABAETA



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida



RADIO ELECTRICIDAD LEGAZPIA
"R.E.L.E."
 Gotzon Beitia Lazkano

ESKORIATZA

Denda:
 Santa Ana 17, Eskoriatza
 Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
 Santa Ana 12, Eskoriatza
 Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

AITZORROTZ
 elektronika

- Tebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
 Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekoratio eta Industriala

San Pedro, 14 behea **ESKORIATZA**
 Tel.-Faxa: 943 71 47 28
 Arrasate Tel.: 943 77 16 66
 Poltsikokoa: 608 92 11 18

FRIXI Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 **ESKORIATZA**
 Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren
OYANGUREN
 Iturgintza

Aranburuzabala 15 **ESKORIATZA**
 Tel.: 943 71 47 14
 606 007 369
 f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa •

L. GONZALEZ
 PINTURAK
 Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6
ARETXABALETA
 686 113 581

ARETXARGI

Modesto ROMEO
 Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA
 943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



URKO
 MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenu osoa
 Berokuntza • Gasa
 Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
 Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
 GASA
 KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA 943 793 187



MAKAI
 Koop. Elk.

Basabe poligonoa D-2-1
 117 posta kutxa
ARETXABALETA
 Telefonoa eta faxa:
 943 79 78 45
 Poltsikokoa:
 616 96 57 98

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatze sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Zure lanak iragartzeko lekurik aproposena